

ARRASATE


PRESS

Arrasate 1991ko Azaroak 8, 125. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean




**JAVIER
ARMENDARIZ**
izarrak
argizatzen



Modako kirolak

Zirrara berrien lilura



A R R A S A T E
K I R O L A K

Kontzeziño, 8 ARRASATE. Tfnoa: 79 46 12



Jabier

B

aliteke berakatzak zintzilik edukitzea hai-zeak sikatzeko, baina nork esango luke ez dituztela ipini banpiroak uxatzeko asmotan? Dena den, superstizioak albora utziko ditugu, gaur egun banpiroetan oso jende gutxik sinesten duelako, bai ostera, lapurretetan, ugariak izaten bait dira. Berakatzak ez du frogatu lapurreten aurka eraginik duenik,

hobe beraz, txakur on bat etxea zaintzeko. Berakatzak tutik ere esaten ez duen bitartean, txakurrak baten bat gerturatzan denean zaunka egingo du behintzat. Gainera, entzun bezain laster ezagutu eta bereiztuko du etxekoa ala kanpokoa den, kanpokoei zaunka eginez barrukoak ohartarazteko; hor igertzen da txakurraren leialtasuna.

HUETO Doktorea

**Eztarria, sudurra,
belarriak**

Ordua eskatzeko: 79 81 11
79 81 00

Olarte kalea, 43 Arrasate

Gabriel Elorriaga Dka.

**Loditasuna • Zelulitia
Zelulolipolisiaren
tratamendua**

Santa Kruz, 24-1* (1°C Eskailera)
ARETXABALETA Tfnoa: 79 13 54

olioak, **Artea**
lientzoak,
akuarelak eta
eskulanak

Ferreñas, 25 Tfnoa: 77 10 95



ETXEPARE - BILINTX LIBUBUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 BERGARA Tfnoa: 76 40 50

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Azoka kalea, 1 / 20.500 ARRASATE.
Tfnoa: 77 05 65

Laguntzailea:

Arrasateko Udala

Zuzendaria:

Iñaki Mendiguren

Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria, Agurtzane Loidi

Publizitatea eta harpidetzak:

Amaia Sanz
Tfnoa: 77 08 15

Maketazioa:

Goio Arana

Erredakzio-kontseilua:

Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zاراia,
Asier Aranguren, J. Velez de Mendizabal.

Kolaboratzaileak:

Mikel Irizar, Karmele Zuazubiskar, Juan Martin
Ellexpuru, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso,
Gerardo Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus
Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo Elortza,
Blanka Jauregi, Klarion Taldea, Joseba Vallés,
Karmelo Urizarren, Iñaki Aranburu,
Hankamotz, Maite Toledo, Atalaitaikoan, ASA
taldea, Xabin Arrieta, Txipi Ormaetxea,
Arantxa Ozaeta.

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 5.800 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien
erantzunkizunik.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan
egiten da.

Gure gabeziak, berriz ere azalean

Gu ez gara separatista, independen-
tista baino" izan zen, Radovan
Grgec kroaziarrak elkar ezagutu
bezain laster egin zidan aitortpena.

Nire solaskidearen mugaketa zehatzak
dekada askotako hausmarketaren emaitza
adierazten zuen; izan ere, kroaziar herriak
-Europa eta mundu osoko hainbatek
bezala- bere independentziaren alde
daraman borroka isil zein gatazkatsuaren
sorburua iragan urrunean galtzen bait da.

"Europako Estatu Gabeko Nazioen
Subirotasuna" lempaean antolatutako
Euskaria erakundeak sinposium berezi
bat. Kontinente zaharrean, ekialdeko
blokearen erorketaz batera piztu den
independentzi egarriak garbi azaltzen du
estatuetak mugen erlatibotasuna. Horixe
nabarmendu nahi izan zuen sinposiumak;
hori eta urtetan jasandako estatu-zapal-
kuntzatik ateratzeko Europako zenbait
herrik erabili duten bidea aztertzea, hain
zuzen.

Euskal Herriko egoera konpara al
daiteke Lituania, Letonia, Kroazia,
Eslovenia, etab. etakoekin? Horratx
sinposiumean behin eta berriz egin den
galdera. Erresistentzia, borroka eta
askapenerako deia dira euskal kontzien-
tzia itxuratu duten faktoreak, batipat
Euskal Herriari nazio-estatu inposatu
zitzaionetik. Euskal abertzaletasunak
bereko konstituzioa aldarrikatu du
betidanik, herri eta nazio independente
bezala. Zehazkizun horrek bereizten du
abertzaletasuna karlistotik, izan ere
karlistek nazio-estatuaren konstituziotik
aldatu nahi izan bait zuten marko
juridikoa. Europako independentzizaleok
herri guztien askapen osorako eskubidea
aldarrikatzean, kultur eta giza libertatean

testuingurua dute aipagai, ukaezineko
erromantizismoz kutsaturiko ikuspegi
tinkotik.

Gure artean, aldiz, mugimenduaren
zain transmititzaileetan gainerako europar
nazio independentzizaleen baldintzak
ematen diren arren, odola higiterazi behar
duen organoa gaixorik dago. Gezur
instituzionalaren menpe bizi da euskal
gizartea, bi hizkera zeharo desberdin
zuzentzen dizkioten eraikunde politikoen
eraginpean, erdigalduta. Frankismoaren
diktauratik esnatu ginela hamasei urte
igaro ondoren, sekula baino dezepzio
sakonagoa nabari daiteke euskal gizar-
tean. Alde batetik, arras erotu omen den
joera bortitz eta kalifikagaitza; bestetik,
ustez abertzale diren alderdi politikoen
azpijoko interesatua, beren profesionali-
zaziotik estaturik zentralenaren morroin.

Euskariak antolatutako bilkurak
puntu bat utzi du garbi: independentzian
jadanik bizi diren eta lortzear duten
duela apostua, beren asmoa erdiesteko.
Ez zaizkie petrikiloen txaplatak aski izan.
Eta modu errealistan jokatu dute:
helmugara iristeko bidean bertan behera
ezer utzi behar izaten badute, bi aldiz
pentsatu gabe egin da, bihar etzi erreku-
peratu ahal izango dutelako esperantzan.
Ipar eta Hego Euskal Herriari independen-
tzia eskaintzeko, Frantzia eta Espainia
estatu suntsitzaileak inoiz bat etorriko
direla uste dutenak badira gure artean.
Horren gisako inozoak komeni zaizkie
gure politikoei, beren jezarleku erosoetan
gizentzen jarratzeko. Euskariaren
sinposiumak gure gabeziak azalerazi ditu,
berriz ere.

JOSEMAR VÉLEZ DE MENDIZABAL



HAURTOKO

Arrasate Pasealekua, 4
ARRASATE Tfnoa: 79 14 90

ZUMADIA
baseri-altzariak

Antzinako eta beste garaietako gauzak

Larunbat arratsaldetan zabalik

Maiatzaren 1a Plaza, 4 OÑATI Tfnoa: 71 60 75



gili gili

Iturriotz, 9 Tfnoa: 79 94 57



Liburu eta oparidenda

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84

ARAMAIO
okindegia

Maisu Guridi, 3
Tfnoa: 79 36 46

ZANGITU
C. B.

PINTURAK ETA
PAPER PINTATUAK

Olarte, 29
Arrasate
Tfnoa: 79 91 82

D. Irala
Bergara
Tfnoa: 76 19 54

PAZI-OLA S.A.

Zaldispe kalea, 2
ARRASATE
Tfnoa 79 29 94

Jabier Ozaetari

Egunkariak Arrasaterako atera zuen gehigarri berezian hire artikulu bat agertzen duk *Arrasaten bertakotxe euskara* izenburuaz, eta berari buruzko gogoeta batzuk egin nahi dizkiat.

1/ Ulertu dudanez, hire artikuluan *euskara mintzatu landugabea* eredutzat hartzen duk, hori *bertakotxe* euskararekin identifikatu eta Arrasate Press-en horrelako gehixeago sartzea proposatzen duk. Nongoa da, ba, orain erabiltzen dugun euskara?

Nire ustez, ez zegok euskara mintzatua euskara idatziarekin nahasterik, edo euskara mintzatu landugabea "bertakotxe euskerie"arekin, edo sukaldean eta lagunartean berba egiteko euskara ekintza publikoetan erabili edo Arrasate Press-en idazterakoan behar dugunarekin, edo ATBra gonbidatutakoek egin dezaketen edozelako euskara bertako esatariek erabili behar dutenarekin. Nahasketa hauek arrisksutsuak dituk.

2/ Esaten duk hire ezagun batek "nahiz eta hemengo euskerie jakin eta euskeldune izan, eskribituren erderaz bakarrik ei daki". Eta "andra koitadua, nahiz eta berak mondraueko euskerie baekixela esan, euskaltegira joateko gonbidapena jaso zuen, bere euskera sakontzeko eta alfabetatzeko bide batez" ... "euskeraz ganoraz ez baleki legez!".

Ba, ez, Jabier! Horrelako pertsona asko zegok gure artean, eta horiek denek mugapen handiak dizkiate euskara mailan (ez beren erruz, seguraski). Jende hori alfabetatzen saiatu behar diagu (mundu osoan zehar gertatzen den bezala), eta ezin bada, segi dezatela "ahal duten" euskara erabiltzen (beren konplexuengatik erdaraz egin gabe). Baina ezin



Fotokopiak
Enkuadernazioak
Planoen erreprodukzioa
Offseta

Ferrerias, 23
ARRASATE Tfnoa: 79 46 62

diagu "bedeinkatu" hain luzaroan ezarri diguten analfabetismoa, lehenbailehen gaintu beharreko egoera tristea besterik ez duk eta.

Seguraski, 8 urteko lobak zerikasi asko izango dik izekoagandik (jariotasuna, euskal sena, esamolde jatorrak, ñabardurak, arlo batzuetako lexiko aberatsagoa, etab.), baina gainera ikastolan **euskara mintzatua landu eta idazten eta irakurtzen ikasiko** dik. Eta honek izekoarentzat pozgarri izan behar dik, eta inola ere ez umiliazioa.

3/ Oso gauza puntuala duk, baina zer esan nahi dik "euskera ziztrin" batean etorri zitzaie la erantzuna udaletxetik?

4/ Niri ondo iruditzen zaidak Arrasate Press-en erabiltzen den euskarari buruz hausnarketa serioa egitea: bizkaierazko aditza eta beste gauza batzuk sartu ala ez, Arrasateko azpieuskalki edo aldagaiaren ezaugarriak zeintzuk diren, etab. Baina beti ere ahaztu gabe euskara idatziaz ari garela, eta nolabait ere arautua eta normalizatua beharko duela izan.

Tokian tokiko hizkeraren aberastasunaren izenean, euskara idatziarentzat batere aberasgarri ez den anarkian jausten garela iruditzen zaidak sarritan. Adibidez, zergatik hasi "euskera, euskerea, euskerie, eskuara, iuskara..." idazten Euskaltzaindiak denontzat *euskara* proposatu badik?

Maritxu Kajoiko batzordeak txanpan-botilan erabili zuena (han oso ondo zegoena!) ez diat uste euskara idatziaren eredu izan litekeenik, ezta garai batean Estepanek eta Jesusmarik *Berbaroa* egiterakoan erabiltzen zutena ere (eta hura ederto zegoan testuinguru hartan!).

Iñaki Mendiguren

LORATEGI
taberna


Iturriotz, 7 Tfnoa: 79 04 67

Zer erizten diozu arabiar eta israeldarren arteko arazoari?



Ramon Agirre
(Ikaslea)

Sentitzen dut, baina gai horretan ez nago oso jantzia. Madrilen zerbait konpondu izatea espero dut, baina ez dakit ezer askorik.



Sofia Coronado
(Etxekoandrea)

Nire ustez elkar ulertzeko ahalegin guztiak egiten ari dira, beharrezkoa bait da. Bada garaia arazo horri irtenbidea emateko. Ez dakit Madriletik zerbait ona aterako zuten, baina atera beharko zuketean.




Arantxa Telleria
(Langilea)

Aspaldiko arazoa da. Madrileko bake-konferentzian ez dut uste ezer konpondu dutenik, israeldarrak ez direlako oso gustora joan. Arazo horri ez diote horrela emango, irtenbiderik, tentsio handiegia dago eta.



Eduardo Sagasta
(Langilea)

Nik zer dakit ba! Nik telebistan gerran daudela ikusten dut eta hori ez dago ondo. Madrilen bake-konferentzia egin dutela? Ba, ez naiz enteratu, baina bakearen aldekoa bada ondo, guztiok nahi dugu bakea eta.



Evaristo Barreras
(Jubilatua)

Horri buruz ezer gutxi dakit, ez dakit zer esan. Madrilekoa bukatu da, baina ez dut uste ezer onik ateradenik, israeldarrek ez dutelako ezertan amore eman.



Fina Segurado
(Etxekoandrea)

Ez dakit zer esan horri buruz; gainera, azkenengo gertakizunen berririk ez dut. Suposatzen dut Madrilen zerbait konponduko zutela.



ARRASATEKO UDALA



Arrasateko Udalak **2 liburuzain laguntzaile** kontratatu nahi ditu **3 urtetarako**.

Hautaketa-prozesua aginduko duten Oinarri-arauak Udaltxean jaso daitezke.

Izena emateko **epea azaroaren 20an** amaituko da.

BEHARREZKO TELEFONOAK

ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorioa	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
(Txanda hartzeko)	77 03 46
	77 07 21
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio (945)	45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako ambulanzialariak	45 87 44
-----------------------------	----------

UDALTAINGOAK

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZAINZTA

Arrasate	79 71 99
----------	----------

SUHILTZAILAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78

GARRAIOAK


Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

HIRUGARREN ADINARENZAKO ZENTRUAK

Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

KONTSUMITZAILEARENZAKO INFORMAZIOA

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak	79 87 77
--	----------



8

OSTIRALA

- Zinea: Alai: "El marido de la peluquera" (5-7.30-10).
- Kontzertua: Eibarko "Sostoa" abesbatzaren emanaldia San Frantzisko elizan, iluntzeko 8etan.
- Kontzertua: Gaztetxean, Etsaiak eta Soziedak Alkolika S. A. taldeekin, gaueko 10.30etan.
- Goardiako farmazia: Egunez: A. Ruiz, Maala. Gaeuz: Camacho, Bergara.

9

LARUNBATA

- Zinea: Alai: "Llamaradas" (5-7.30-10)
- Bideo-emanaldia: "Indiana Jones arka galduaren bila",

Kirol Agenda

Autokrosa

- Aretxabaletako Arkarazo auzoan, igandean arratsaldeko 3.30etan.

Saskibaloia

- Centraljet Euskal Air-Leioa, Musakolako kiroldegian larunbatean arratsaldeko 6etan.

Futbitoia

- Zaldibarko txapelketaren barruan, larunbata eta igande goizean hainbat partidu.

Monterronen arratsaldeko 4.30etan.

- Erakusketa: San Juanetako Diapositibak, Udaletxeko artxiboko kristalean.
- Goardiako farmazia: Egunez: Morales, S. Andres. Gaeuz: Puy, Bergara.

10

IGANDEA

- Zinea: Alai: "Llamaradas" (5-7-9.30)
- Goardiako farmazia: Egunez: Azkoaga, Ferrerías. Gaeuz: Puy, Bergara.

11

ASTELEHENA

- Zinea: Alai: "Llamaradas" (7-9.30)
- Informazio-bilera: Larreako etxebizitzak, Udaletxean 7etan.

12

ASTEARTEA

- Zinea: Alai: "Llamaradas" (7-9.30)
- Goardiako farmazia: Egunez: Corcuera, Musak. Gaeuz: Estella, Bergara.

13

ASTEAZKENA

- Hitzaldia: "ACENOR, Euskalduna moduko beste bat?", Monterronen arratsaldeko 7etan.
- Hitzaldia: "Udalak eta euskararen normalkuntza", Bergarako UNEDen arratsaldeko 5etan eta 8etan.
- Goardiako farmazia: Egunez: Irizar, Erguin. Gaeuz: Mozos, Bergara.

14

OSTEGUNA

- Hitzaldia: "Sexualitatea eta afektibitatea bikotean", AEDn arratsaldeko 7etan. Hizlaria: Julen Arregi.
- Teknologi zabalkunderako ikastaroen barruan, *Análisi modal experimentalari* buruzkoa, Ikerlan-en.
- Goardiako farmazia: Egunez: Amezua, Santama. Gaeuz: Camacho, Bergara.

Ikastaroak

• Dantza-ikastaroa

Lore Gazteak dantza-taldeak 12-14 urte bitarteko mutilak behar ditu dantza-taldea osatzeko. Interesa duten mutil gazteak, ostiraletan, 7etatik 8etara dantza taldearen lokaletara joan daitezke. Lokal hau gazte-zerbitzuaren ondoko atean dago eta informazio gehiagorako 79 34 62 telefonora dei egin daiteke.


• Sexualitatea eta afektibitatea bikotean

Azaroko hiru ostegunetan, 14ean hasi eta 28an bukatuko da, AEDko EKIN emakume-taldeak antolatutako *Sexualitatea eta afektibitatea bikotean* ikastaroa. Hitzaldi hauek Julen Arregi psikologo klinikoak emango ditu eta ostegunetan arratsaldeko 7etan Pablo Uranga kaleko AED lokaletan izango dira.

Deialdiak

• Zikloturistak

Arrasateko zikloturisten taldeak, federatzeko inskripzio-epea zabaldu du hurrengo denboraldirako. Euskadiko Txirrindulari Federazioak, bai mendi-bizikletazaleak bai zikloturistak aseguratzen ditu. Informazio gehiago nahi dutenek, Deba Garaia Txirrindulari-Taldeko lokaletan (tren-geltoki zaharrean) azaroko larunbatetan eguerdikoko 12etatik 1etara izango dute.



KONTZERTUA GAZTETXEAN

Etsaiak eta S. A. ostiraletan 10.30etan

Azken aldi honetan, bertako eta kanpoko musika-taldeekin, Gaztetxean izugarriko kontzertu-piloa ari dira antolatzen. Ia astero moduan, ostiral honetan ere, hilak 8, gaueko hamar t'erdietatik aurrera, Gaztetxean rock-kontzertua izango da. Gaurkoan, *Etsaiak* eta *Soziedad Alkolika* taldeen musika entzuteko aukera izango dute Gaztetxera hurbiltzen diren guztiek, 350 PTA ordainuz.

Urte bat baino gehiago pasatu da, gazteak Ospitale Zaharreko behe-solairuan sartu zirenetik. Ezertarako erabiltzen ez zen tokia txukundu eta urtebetean berentzako topagune bihurtu dute Gaztetxea. Behar bada, jende helduak ez du begi onez ikusiko aipaturiko lokal horri ematen zaion erabilera; gazteek bai, ordea. Jakinda hemendik denbora gutxira Ospitale Zaharraren obrak hasiko direla, ez litzateke gaizki egongo gazteentzat toki egokiren bat aurkitzea ere.

• Erguinen Ludoteka

Erguineko ume guztiek azaroko larunbatetan, 9, 16 eta 23an hain zuzen ere, Udal-Ludoteka izango dute beren auzoan. Joan nahi duten guztiak Erguin eskolara jo beharko dute eta bertan mahai-jolasak, jolas tradizionalak, kanpoko jolasak, etab. egiteko aukera izango dute.

• Larrea Etxebizitzak

Udaparen Hirigintza-Sailak deituta, astelehen arratsaldean, hilak 11, Larrean egin beharreko babes ofizialeko 110 etxebizitzak behin-behineko adjudikatarien informazio-bilerara egingo da. Informazio-bilerari arratsaldeko 7etan emango zaio

hasiera, Udaletxeko Pleno-Aretoa.

Hitzaldiak

• Monterronen hitzaldia

ACENOR: "Euskalduna" moduko beste bat? izenburuko hitzaldia antolatu du AEDk. Tomas Etxabe sindikalari historikoak emango du Monterronen azaroaren 13an, asteazkena, arratsaldeko 7etan izango den hitzaldia. Bertan jorratuko diren gaiak honako hauek izango dira: birmoldaketa-planaren nondik norakoa, zergertatuko da Aiara eta Hernanialdean? Beharrezkoa da aipatzen den bir-

moldaketa? Noren interesak ba-beste? Konpetitibitatea ziurtatu behar da?

Desfilea

• Moda-desfilea Oñatin

Datorren ostiraletan, hilak 8, gaueko 10etan Oñatiko Institutuan eta bertako ikasleek antolatuta moda-desfilea izango da. Bertan ume eta gazteendako arropak aurkeztuko dira; udazken eta neguko arropak, kirol eta beste alorretakoak ere izango dira ikusgai.



Jaiak

• Arkarazoko jaiak

Igande honetan, azaroak 10ean, Aretxabaletako Arkarazoko auzoan jaien egitarauaren barruan arratsaldeko 3.30etan autokrosa izango da. Hurrengo martitzenean, 12an, San Millan eguna ospatzeko arratsaldeko 8etan hasita, meza, afaria eta Ritxar trikitaliarekin erromeria auzokoentzat.



“ Xuberoko pastorek arrakasta gaitza dute aurten Muskildin eta Larrañen, ohi den bezala, bira emanaldi. Muskildikoa berriz izan da Donibane Lohitzunen, Arrasaten eta azkenik, urriaren Sean, Donostian. Heldu baita Setan emana izan dela, gauza hori ez baita oraino sekula gertatu hain segur.

Larrañekoa, aldiz, hirugarren aldi batendako anontzatua zauku Ohiartzunen negu haste huntan; luzaz ez bada Xuberotik atera pastoralara, hoinbeste agerraldiren emaita kanpoan seinale da joko hunen omena eta arrakasta beti zabalduz doatzila. Hobe segur, Pastoralara euskal kulturako izar handienetarik bat da. Eta kanpoko probintzietan geroago eta gehiago ikusliar izaitea marka da gure kultura azkartuz doala alde hortarik”.

(Herria aldizkaria. 2124 zenb., urriak 17)

“ Arrasaten garbi ikusten da euskara ikasteko beharra eta demanda dagoela baina behar besteko eukara. Adibidez, iaz EROSKI etorri zitzaigun esanez, kajan egongo zirenei, zerbitzu hori bete ahal izateko adina euskara irakastea nahi zutela, eta zertarako nahi dute horiek idazlanak egiten jakitea? Gauza bera gertatzen da, familia erdeldunetako gurasoekin, enpresetatik bidaltzen dituzten langileekin, helburu batzuk lortzeko adina euskara ikasi nahi dute”.

“Gauza ugari egiten dira gure herrian euskararen alde, baina arrisku handia ikusten diot egoera honi, izugarriak garenaren ustean, utzikerian erori bait gintezke. Daukaguna ez da gutxi, baina orain sakondu egin behar dugu, eta ez hitz jario hutsean gelditu”.

(Nati Abasolo, Udal-Euskaltegiko zuzendariak Egunkarian)

Zergatik joan den asteko ikastola-irakasleen greba?



Maiatzean, sindikatu bakoitzak bere lan-hitzarmen proposamena aurkeztu zuen. Irailean erantzun zuen Federazioak.

Erantzunean, Eusko Jaurlaritzako maila bereko funtzionarioekin homologaziorako lehen pausu bezala, 1.686 ordu irakaskuntzari eskainiak behar direla izan agertzen da, orain 1.293 ditugun bitartean, eta puntu hau onartzea, ezinbesteko zen besteak negoziatzen hasteko. Honen aurrean, LAB eta ELA sindikatuek plataforma bateratua aurkeztu zuten. Negoziaketak eten egin ziren eta gure postura hau da: alde batetik, orduez hitz egin behar da, baina zentzu zabalagoan eta garbi utziz hitzarmeneko puntu bat besterik ez dela, eta ez duela zertan baldintzatu eta oztopatu beste puntuen negoziaketa.

Bestetik, ordu-kopuru hau ez dugu onartzen lan-hitzarmenaren barruan jartzea, behin onartuz gero ikastola bakoitzak ordu-kopuru horren irakurketa ezberdin bat egin dezakeelako eta beldur gara berehalako batean behartu egingo gaituztela lan-ordu horiek betetzera. Bestela, ez dugu ulertzen Federazioaren postura intransigente eta inposatzaile hau.

Txantaiaren bidea ez da egokiena elkarlanean iharduteko eta espero dugu negoziaketa eta akordioaren bidera etorriko direla Federaziokoak denon artean egin nahi dugun Eskola partehartzailea eraikitzeko. Bestela mobilizazioaren bidea besterik ez zaigu geratuko.

Irune Iribekanos,
andereñoa.

GOROSTI
Jatetxea

Arimazuri plaza, ARRASATE Tfnoa: 77 06 07

MUSAKOLA
OSTATUA

Taberna
Jatetxea
Bazkariak
Bodak
Banketeak
Gelak

Gipuzkoako Etorbidea z/g
Tfnoa: 79 20 50



ATBn zerbitzu berri bati eman zaio hasiera

Teletestua ikusgai ATBn

Egunero goizeko 10etatik arratsaldeko 8etara

Orain dela hiru aste, ATBn *teletestua* jarri zen martxan. Orduetik, egunero goizeko 10etatik arratsaldeko 8etara ATBekin konektatzen duenak, Euskadi Irratia edo Euskadi Gaztea entzuten dituen bitartean, hainbat informazio desberdin irakurri ahal izango ditu: Arantzazuko Egutegitik ateratako txiste eta kronika laburrak, interesgarri izan daitezkeen telefono-zenbakiak, herriko kultur eta gastronomi elkarten helbide eta telefonoak, aste osorako horoskopoa, lana eskatzen edo eskaintzen dituzten

oharrak eta publizitatea sailkatuta.

Teletestua martxan jartzeko arrazoi nabarmenenak, ikusleari informazio desberdina eskaintzea, egun osoan ATB konektatzen duenak zerbait ikusteko izatea eta publizitatea lortzea lirateke. Publizitatea, hain zuzen ere, sailka eskaintzen da teletestuan, igeltseroak, arotzak, iturginak... etab. ATBko sail horretan norberaren berri ematearren 2.000 PTA ordaindu behar dira hilero; azoka-plazan iragarkiren bat jartzeagatik, aldiz, 500 PTA.




□ Istripua

Asteazkenean goizeko 7.30etan, Arlaban hasieran, oktosileno karga zerraman kamioi batek labaindu eta buelta eman zuen. Ondorioz, 25.000 litro oktosileno errepede eta Deba ibaira isuri ziren. Eskoriatza eta Aretxabaletatik zehar doan ibaiak izan dezakeen kutsadura-maila aztertuko da, disolbatzaile hau arrisku handikoa bait da.



□ Urkulun protesta-ekintza

Joan den azararen 6an LKak Urkulun egin behar duen etxearen aurrean beste protesta-ekintza bat burutu zen. Hogeitamarren bat lagun elkartu eta obretako metalezko dorre batean pankarta bat ipini zuten; ondoren, ordu laurden egon ziren bertan.



EGVZKIGRAF

Grafikagintza. Tipografia. Offset industrialia

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

Carrión música, s.a.

- PIANOAK: Yamaha, Kawai, Rameau, Samick, Astor. (Prezio bereziak)
- MUSIKA-TRESNA ELEKTRONIKOAK: Yamaha, Roland, Korg, Casio, etab.
- EKIPO PROFESIONALAK

M. Iradier, 20 GASTEIZ Tfnoa: (945) 23 07 49

zeppelin



Loramendi, 3 etxabea
ARRASATE Tfnoa: 79 74 09

Bertso-lehiaketan Arantzazu kanpora Aitor aurrera

Joan den ostiralean izan genuen Aretxabaletan Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako kanporaketako azken aurreko saioa. Zinema poliki bete zen, Leintzarrok Arantzazu Loidik egingo zuenaren zain geunden. Saioa nahiko egoki moldatu zuen, batez ere hasierako zortziko handiko saioan eta oinak emandakoa. Gainontzekoan, ez zuen behar bezala borobilduta moldatu bertsoa; urduritasunak behar bada gehiegi eragin zuen berarengan.

Saioa bukatzerako 407 punturen jabe zen. Bostgarren lekuan zegoen eta zuzenean pasatutakoak Peñagarikano, Lizarreta eta Munduate goierritarra ziren. Hondarribiako saioa egin aurretik, bai bera eta bai Aitor, 413 punturekin, klasifikazio orokorreko bost puntuaketa onenen artean zeudenez, aurrerako txartelaren jabe ziren, baina Hondarribiako saioko partaide batek tokia kendu eta Arantzazu kanpoan gelditu zaigu norbaitek huts egin ezean. Aitor Sarasuak, berriz, aurrerako bidea libre dauka; Jon anaia eta biak Beasainen azaroak 15ean elkarren deman izango dira. Azken laurdenak gogorragoak izango ditugu, pasabidea gero eta estuago baita. Oraingoan Sarasuatarrek dute hitza.

ONGI ETORRIA JAIÖBERRIEI

Mondragon Serrano, *Adei*. Urriaren 24an.
Dominguez Rodriguez, *Sonia*. 25ean.


ZORIONAK EZKONBERRIEI

Iñaki Mujika & Ana Rosa Guridi.
Urriaren 26an. Elizez.
Raul Gomez & Inmaculada Trujillo.
Urriaren 31n. Zibilez.

Txandaka

HERRIKO PRESOEN EGOERA

Irailaren 30ean, Euskal Preso Politikoek, hastear zuten gose-greba baten berri eman zioten Euskal Herriko biztanlegoari eta, oro har, gizarte osoari. Presoek adierazi zuten bezala, kolektibo osoaren etengabeke eta aldizkako ekimena da gose-greba, eta beronen helburua, preso guztiak



Goio Etxabe (*)

Euskal Herriko gartzeletara ekar ditzen exigitzea da. Egiten den exigentzia bakar hau ez da beste munduko gauza; izan ere, exigentzia hau betetzeak, presondegiei buruz gaur egun indarrean dagoen legeria aplikatzea besterik ez bait luke suposatuko.

Euskal presoek azken lau urteotako *sakabanaketak* presondegiei buruzko legea ez betetzeaz gain, presoek eta beren senitartekoen oinarrizko eskubideak ez errespetatzea suposatzen du.

Gaur egun, Arrasateko 17 preso politikoak Tenerife, Kanaria Handia, Puerto, Murtzia, herrera, Avilas, Burgos, El Dueso eta Langraitzen sakabanatuta daude, Josu Arkauz Frantziako Fresnes gartzelan espe-

txeraturik dagoena ahaztu gabe. Egoera honen esan nahi du Arrasateko biztanlegoaren sektore batek *sakabanaketa* deituriko bidegabezko politikaren ondorioak sufritzen dituela.

Arrasateko preso politikoek familiarrek, pertsona diren neurrian, beren giza eskubideak

zapuztuta dituzte.

Egoera latz honen aurrean, eta beren eskubideak defenditzeko, *Senideak* erakundea sortzera eta antolatuz behartuta sentitu dira.

Egun hauetan, izango zenuten talde honen berri; izan ere, sinadura edo firma-bilketa bat egiten ari da. Sinadura hauen bidez, beren eskubideak errespetatzea, herritarren laguntza jaso nahi dute.

Arrasateko Amnistiaren Aldeko Batzordeak, ekimen honi geure oneritzia eta laguntza eskaintzeaz gain, *Senideak* izeneko erakunde berriari zuen laguntza ematea eskatzen dizuegu Arrasateko biztanle guztiak.

(*) AMNISTIAREN ALDEKO
BATZORDEKO KIDEA

BURGALES JATETXEA

Jaki goxoak eta giro atsegina

Durana, 12 ARETXABALETAKO

ALTUNA

Lurrindegia
bisutegia
drogeria

Maalako Errabala
Tfnoa: 79 14 23



Larreako etxebizitzak eraikitzeko lanak oraindik ez dira hasi ere egin

Larreako etxebizitzak eztabaidagai

Prezioaren gorakada Jaurlaritzaren moduluen igoeragatik

Larreako Babes Ofizialeko Etxebizitzaren Proiektua dela eta, azken egunetan zurrumurru ugari entzun da; baita Udala eta Proginsaren jokaerarekiko salaketa eta kexuak ere.

Urtebete baino gehiago pasatu da lehen proiektua aurkeztu zenetik. Proiektuak 90 metro karratuko 110 etxebizitza egitea proposatzen zuen, 250 garajerekin. Asmoa hori zelarik, Udalak 9 milioi pezeta inguruko salneurria aurrikusten zien etxeei. Teorian, eraikitze-lanak martxoan hasi behar zuten. Eskatzaileen zerrendak zabaldu ziren, baldintzak ezarri eta zozketa egin.

Gauzek beren martxa zeramatela, hau da, zozketa bidez hautatutako eskatzaileek baldintzak betetzen zituzten edo ez ikertzen ari zela Proginsa, bapatean hasierako proiektua atzera botatzea erabaki zen. Huts ugari zituelako, dirudienez. Proginsaren prozesuak aurera egin zuen eta ikerketa bukatu on-

doren, lehen zerrendatik kanpo 23 eskaera gelditu ziren. Etxea eskuratzeko aukera lortu zutenei, LKA-CLPeko kontu batean 1.500.000 PTA sartzeko eskatu zien Larrea Etxebizitzetarako Kooperatibak, orain bi aste, obrak hasi barik zeudela. Eskaera honek hainbat haserre eta gaizkiulertze sorterazi ditu.

Gauzak argitzeko, Kooperatibak eskutitza bidaliko die etxebizitza erostekotan direnei. Eskutitz horrek dioenez, behin bigarren proiektua onartzen denean ez erostea erabakiz gero, aurrez sartutako diru-kopurua osorik itzuliko da. Proiektua, gutxi gorabehera, 1992ko urtarrilerako bukatuko da eta baliteke salneurria 10.300.000 PTA ingurukoa izatea, garajea eta trasteroak kontuan hartu gabe. Lehen prezio honetatik bigarrenera dagoen aldea, Jaurlaritzak urtez urte babes ofizialeko etxebizitzaren moduluetan egiten duen igoeraren ondorioa da.

Usteak uste

Ederra joan zen larunbatean gertatu zitzaidana!

Ogia eta egunkaria erostera irten nintzen. Berebela gaizki aparkatzen ari nintzela oharterazi zidaten gertu zeuden bi ertzainek, euskaraz: "Aizu, *hór aurrean duzu aparkatzeko toki aproposa; alda ezazu kotxea tokiz, mesedez*". Agurtu ondoren, euskaraz jarraitzen zuten. "Gauzak hobetuz doaz" pentsatu nuen.

Kioskoan zortzi bat lagun izango ginen batera. Eta, sines-tezina! denok *Euskaldunon Egunkaria* erosi genuen. Okidegian ere ez nuen gazteleraz entzuteko aukerarik izan.

Zaldibarren izugarritzko animazioa zegoen futbitoko partiduak zirela eta. Han jaso nituen, bai, ezusteko eta pozik handienak, jokalarien arteko hizkuntza euskara bait zen. Baita ikusleena ere.

Ez nekien zer pentsa. Nork esaten zuen arrasatearrok euskaldunak ez ginela?

Gutziz harriturik etxera itzuli eta atariko txirrina jotzeko prest nengoela... "Ring-ring-ring..." esnatu ninduen despertadore madarikatuak. "Esaten nuen nik, bai... eskerrak gaur igandea dela eta ez astelehena". Etxekoei kontatzerakoan hauxe esan genuen: "Hain zaila al da euskaraz ez dakiena ikasten hastea, eta dakienak egitea?"

Gosaldu ondoren, ogia eta egunkaria erosteko asmoz irten nintzen kalera.

J. R. ELORTZA

LA UNION

Garaje elektro-mekanikoa
Agentzia ofiziala

Tailerra: Zaldispe, 2

Erakusketa: Santxo Abarka, 6

ARRASATE Tfnoa: 79 97 12



Ileapaindegi mistoa


Erguin, 15 etxabea.

Tfnoa: 79 80 23 ARRASATE




Sari paregabeak!

Beheko sei denda horietakoren batean erosketak egitean, bi sari bikain hauek zeureganatzeko aukera izango duzu, urtarrilaren 14ean ARRASATE PRESSen egingo den zozketan parte hartuz.




ria
ara bi
mentzako
a.

ult Clio 1.1 CL (F. F.)




Iturriotz kalea, 8 ARRASATE
Tfnoa: 77 04 01




Errikita S.L.
SOINUA • BIDEOA • TB • KOMUNIKAZIOA

Otalora, 25 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 20



Maalako Errabala, 5 ARRASATE
Tfnoa: 79 19 25

Fototrunkoa



Joxe Aranzabal zen joan den asteko pertsonaia.

Aste honetako irabazlea: IDURRE AMOZARRAIN

Argazkikoa nor den esanez, bidali beheko txartela ARRASATE PRESSera (Azoka kalea, 1) eta aste honetan TRIKIT etxeak emango duen opariaren zozketar sartuko zara.

ERANTZUNA

Nor da aste honetako pertsonaia?

.....

Izena:


Abizena:

Helbidea:

.....


Herria:

Tfnoa:



KATAIDE

Kataide Poligonoa. ARRASATE
Tfnoa: 79 60 10



Maala Errabala, 13 ARRASATE
Tfnoa: 79 92 76



J. Markiegi

JANTZIDENDA



Olarte, 2 ARRASATE
Tfnoa: 79 15 32

Prentsa lokalari buruzko

I. Ihardunaldiak

Hilaren 22 eta 23an, AEDk antolatuta LKSko hitzaldi-aretoan Prentsa Lokalari Buruzko Ihardunaldiak burutuko dira. Bi egun horietan, prentsa lokalaren inguruan hainbat hitzaldi, mahainguru eta eztabaida izango dira.

Ihardunaldietan, Euskaditik eta kanpotik etorritako hainbat herritako aldizkari ordezkariek bilduko dira. "Prentsa lokala eta komarkalaren potentzialitatea", "Prentsa lokalaren ezarpen eta zabalpena", "Kataluniako prentsa lokal eta komarkalaren elkartea", "Prentsa lokaleko enpresen egitura ezberdinak", "Prentsa lokalaren finantziabideak", "Banaketaren arazoa prentsa lokalean" eta "Herri aldizkari baten tajuketa" izenburuko gaiak aztertuko dira. Jordi Vallmajó, Juan Maciá eta Toni Siera kataluniarrak, Miguel Angel Elkoroberezar bergararra, eta bertako Asier Aranguren, Joxe Aranzabal eta Mikel Irizarren eritziak entzun eta eztabaidatzeko aukera izango da.



Aukeraturako langileek Monterronen lan egin beharko dute.

Bi liburuzain-lanpostu

Hiru urtetarako izango dira

Udaletxeak hiru urtetarako bi liburuzain laguntzaile kontratatzea erabaki du. Kontratu hauek beteko dituzten pertsonen eginkizun nagusia liburutegiko bibliografi fondoaren katalogazio-fitxak egitea izango da. Honetaz gain, Liburutegiko arduradunek eskatutako laguntza eta kolaborazio-lan guztiak egingo dituzte.

Azterketara aurkezteko, izangaiek ondorengo baldintzak bete beharko dituzte: 18 urte; gutxienez, Unibertsitateko erdi-mailako titulua edo baliokideren jabe izatea; euskaraz nahiz gaztela-

niaz zereginak betetzeko nahikoa ezagupen izatea; gaixotasunik ez izatea eta lan hau betetzeko mugaketa fisiko nahiz psikikorik ez izatea. Azterketan parte hartzeko, eskabideak Udaletxeko Erregistro nagusian aurkeztuko beharko dira azaroaren 20rako, azken egun hau barne. Nahiz eta betebeharreko baldintzetan ez azaldu, komenigarria litzateke frantsesa edo ingelesaren ezagupena, gero bi frogetan eskatuko bait da. Honetaz gain, euskara, bertako kultura eta lanpostuari buruzko froga batzuk izan go dira.

ESTETIKA-ZENTRUA
lurrundegia, opariak, jostailuak

Z a r r a o a

Kanpantorpea, 4 Tfnoa: 79 12 19

VE ECUADOR


Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06

BIONA

Zurgin Kantoia, 2 Tfnoa: 79 20 04 ARRASATE

SAMEGO GARBIKETAK

Uriburu, 24
ARRASATE
Tfnoa: 79 70 39



Izen
PROPIOAK

● **Mikel Larunbe**, 42 urtekoa, iruñearra, astelehenetik Deba Garaiko Eskualde-Ospitaleko zuzendari izendatu dute. Mikel Larunbek medikuntza eta zuzenbide-ikasketak ditu eginak. Lehen ere Arrasaten Lagun Aron, Ulgorren eta Eskualdeko Ospitalean lanean ibili zen. Azken aldiari Nafarroako Ospitalean ari izan da lanean.

● Mankomunitatea 5 batzordean bereizten da eta honako pertsona hauek zuzenduko dituzte: Eusko Alkartasunako **Bixente Etxeberria** arrasatearra izango da Hazien-dako Batzordeburua. **Jose Luis Irizar** oñatiarra Obra eta Hirigintzako Batzordeburua. Ingurugiroko Batzordeburua Arrasateko Alkatea den **Xabier Zubizarreta** izango da. Zubillagako Abere-Hiltegi Batzordea, Antzuolako Alkatea den **Iñaki Lete** jeltzaleak zuzenduko du. Azkenik, Mankomunitateko Enplegu eta Gaikuntza Batzordea Oñatiko Alkatea, **Angel Mari Iturbe** jeltzaleak, zuzenduko du.

Joan zen asteazkenean, urriaren 30ean, gure herrira **Celtas Cortos** Valladolideko musika-talde famatua etorri zen, Eresi musika-dendara, hain zuzen ere. Disko berria atera dute eta honen aurkezpena egitera etorri ziren. Dendan eguerdiko ordubateatik ordubietara eduki genituen diskak eta autografoak sinatzen.

Floren Ojanguren, 67 urtekoa eta Fray Rufinoren anaia eta **Bittori Loroño**, 59 urtekoa eta gernikarra, joan den irailaren 21ean ezkondu ziren Durangoko Santa Maria elizan. Lehen egunak Gernikan eman zituzten, baina ondoren Benidormera jo zuten. Aurrerantzean mila zorion. ▶



SEGURTASUN-INJINERUTZA





Zure denda, lantegia, etxea, etab. **BABESTEN** ditugu **LAPURKETA** eta **SUTEEN** aurka
Legutianoko atea,35 Tfnoak: 26 34 77 eta 26 33 44 GASTEIZ



**GIZON ETA
EMAKUMEAREN
MODA**

Otalora Z/g
Tfnoa: 79 20 50
ARRASATE



Joandako hilean **San Frantzisko Xabier Ikastolako OHoko 5garren mailako** irakasle eta 100 ikaslek Bermeon egonalditxo bat egin zuten. Bertan, arrantza eta honen inguruan sortzen diren langintza ezberdinak aztertu eta ikusteko aukera izan zuten. Haurrak industri giroan bizi direnez beste bizimodu ezberdin bat ezagutzeko eta bizitzeko aukera izan zuten.



Eskualdeko Ospitale ondoan dagoen geltoki zaharraren inguruan badaude **bi auto abandonatuta**, bata Citroën GSa eta bestea Renault 7a, biak aspaldidanik utzi ziren han eta orain zeharo zaharkituak daude. Autoak hortik kentzeko gruari deitzea besterik ez da egin behar eta berak txatarratara eramango ditu, beraz, autoen arduradunek dei diezaiotela.

◀ Joan den ostiralean, 300en bat ikaslek **intsumisioaren alde** eta soldaduzkaren aurkako manifestazioa egin zuten. Manifestazioa bukatzeko, ikasleak Biteriko bidegurutzean bildu eta trafikoa oztopatu zuten. Ertzantza agertu eta manifestazioa desegin zuten. Istiluak gero ere segitu zuten, batzuek harriak jaurti zituzten bitartean, besteek gomazko bolekin erantzun zuten. Ertzaintzak gazte batzuk atxilotu zituen, baina berehala askatzeko.

FAST 2000, S. A.

Cop eta Schneider ordenadoreak
Epson, Mannesmann eta Hewlett Packard inprimagailuak
3M eta Kao disketeak
Inprimagailuentzako zintak eta tonerra
Altzariak
Disketeak artxibatzekoak
Inprimagailuentzako paper jarraitua

Zain gauzkazu **BASABE** Poligonoan
C-1ª Pabiloia ARETXABALETA Tfnoa: 77 14 75

grupo
Lantek



Ni hi baino azkarragoa

Atzeratutako partiduak bakarrik jokatuko dira datorren astean



INBERTSIOAK ETA ZERBITZUAK
AHOLKULARI INMOBILIARIOAK

Anboto

Iturriotz, 11 ARRASATE Tfnoa: 79 20 48

- Errentamenduak
- Salmentak
- Balorazioak, etab.

fasprint

Inprimaketa-denda

Arrasate Pasealekua, 2
ARRASATE
Tfnoa: 77 06 11
Faxa: 77 09 86



A taldea

	Partiduak				Golak		Punt. guzt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Fosforos	5	5	0	0	22	9	10
A. Kristaldegia	5	4	0	1	20	9	8
Adobe	5	4	0	1	23	19	8
Akeitegi Express	5	3	1	1	47	15	7
G. P. Noski	5	3	1	1	21	10	7
Kriskibalda	5	4	0	1	24	15	7
Los Manchas	5	3	0	2	39	21	6
Los Heredia	5	3	0	2	29	14	6
Zulu's	5	3	0	2	23	21	6
Jubilatus	5	2	2	1	26	28	6
Neanthertal's	5	2	0	3	20	16	4
Tronkoteak	4	2	0	2	18	19	4
Uglys	4	2	0	2	11	12	4
S. Ind. Ugarte	5	1	1	3	14	21	3
Koxkas	5	0	1	4	17	28	1
Expert	5	0	1	4	11	51	1
T. San Josepe	5	0	0	5	12	30	0
B. D. L	5	0	0	5	4	43	0
Total	88	40	8	40	381	381	88

B taldea

	Partiduak				Golak		Punt. guzt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
La banda	5	4	1	0	21	7	9
Los Motz	4	4	0	0	31	5	8
Potroak Lorateg.	4	3	1	0	18	7	7
Navarros	4	3	0	1	16	7	6
Fasprint	4	2	2	0	16	9	6
Danak Lagun	4	2	1	1	19	12	5
Ganbelas	4	2	1	1	11	10	5
Sibilus Rover	4	2	1	1	11	10	5
Anbotoste K. T.	5	2	1	2	13	19	5
Jo ta akabau	4	2	0	2	17	14	4
Gau Azkenak	4	2	0	2	15	13	4
Inter de Alima.	5	1	1	3	10	22	3
Bukanak	5	1	1	3	10	27	3
Totxus	4	1	0	3	10	10	2
Maria del Monte	4	1	0	3	5	20	2
M. K. A.	4	0	1	3	8	16	1
Txintxes Osorik	4	0	1	3	5	14	1
Oleee!	4	0	0	4	5	19	0
Total	76	32	12	32	241	241	76

C taldea

	Partiduak				Golak		Punt. guzt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Gnu. Seg. Bilbao	5	4	1	0	19	3	9
New Laso Arregi	5	4	1	0	19	7	9
Adelaida	5	4	0	1	29	8	8
Diego Antonio	5	3	2	0	19	15	8
AEK	5	3	1	1	15	13	7
Bar Kajoi	5	3	0	2	28	14	6
Argi Ibili Mapre	5	3	0	2	17	13	6
Txokeros	5	3	2	2	16	12	6
ATB	5	2	3	1	19	17	6
Taberna Mont.	5	1	1	1	15	16	5
Alaves	5	2	0	2	13	19	5
Aizpun Bila	5	2	1	3	18	22	4
Arrasate Press	5	1	1	3	10	13	3
Aurrera bolie!	5	1	1	3	10	17	3
Shaktale	5	1	1	3	13	21	3
Sokoakoak	5	0	1	4	13	24	1
Bayer de Lenitz	5	0	1	4	7	32	1
Whiskeria Linde	5	0	0	5	11	25	0
Total	90	37	16	37	291	291	90

D taldea

	Partiduak				Golak		Punt. guzt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Artzankos Udal.	5	5	0	0	23	7	10
Notxingan Flo.	5	4	1	0	23	11	9
Arrasate Kirolak	5	4	1	0	21	8	9
Camerun's Trikiti	5	3	2	0	24	11	8
Bar Artano	5	3	1	1	19	12	7
V. C. Daglas	5	3	0	2	31	6	6
Bizkorrak	5	3	0	2	18	11	6
Pepelus	5	3	0	2	17	12	6
Hirei	5	3	0	2	14	13	6
Arrasate Comer.	5	2	1	2	8	11	5
Ezkinako hontza	5	2	0	3	12	23	4
Nagixak	5	1	1	3	8	19	3
Ghana	5	1	0	4	14	16	2
Kakajauri	5	1	0	4	8	16	2
Resakas	5	1	0	4	11	19	2
Balaik	5	1	0	4	5	25	2
Atxanta ke te...	5	1	0	4	11	32	2
Sukumurus	5	0	1	4	6	21	1
Total	90	41	8	41	273	273	90

JMA



Joan den asteko argazkian agertzen zirenei balet-eko dantzarien itxura susmagarria hartu genien. Aste honetakoei berriz ere dantzari itxura hartu diegu, baina balet-ekoak izan beharrean ska-zaleak dirudite.

EDERRA

TABERNA

Iturriotz, 12
ARRASATE
Tfnoa: 79 96 25

EMAITZAK

A taldea

Tronkoteak *	Uglys
Los Heredia 2	Fosforos 3
Koskas 3	Sum. Ind. Ugarte 6
Jubilatus 4	Kriskibaldia 4
Akeitegi Express 8	Zulu's 2
Expert 2	Los Manchas 18
Neanderthals 11	B. D. L. 2
Adobe F. C. 4	G. P. Noski 2
Tall. San Josepe 3	Arrasate Kristaldegia 6

C taldea

Diego Antonio 3	Shaktala 2
Aizpun Bila 0	AEK 3
Sokoakoak 1	Bar Kajol 6
New Laso Arregi 5	ATB 1
Gnu. Seg. Bilbao 6	Bayer de Lenitz 1
Whiskeria Linde 1	Adelaida 4
Arrasate Press 2	Argi Ibilii Mapfra 4
Txokeros 4	Monterrey taberna 1
Aurrera Bolie! 2	Alaves 2

B taldea


Los Motz 6	Gau Azkenak 2
Potroak Lorategi 1	fasprint 1
Bukanak 1	Sibilus Rover 5
Anbotoste K. T. 3	Tobus 2
María del Monte *	Navarros *
Txintxes Osorik *	Oleee! *
La Banda 3	Jo ta akabau! 2
M. K. A. 4	Danok Lagun 4
Inter de Alimañas 3	Ganbelas 3

D taldea

Nagixak 5	Bizkorrak 4
Pepelus 1	Kakajauri 4
Sukumurus Anboto 2	Camerun's 7
Artzankos Udalaiz 3	Video Club Daglas 0
Ghana 4	Notxangan Flo'est 6
Arrasate Ciomercial 2	Resakas 1
Balaika 1	Hirei 5
Bar Artano 3	Arrasate Kirolak 3
Atxanta ke te merces 3	Ezkinako Hontzak 4

Lorategi
Kafetegia

Iturriotz, 7 Tfnoa: 79 04 67



ARRASATE
KIROLAK

Astore, Nike, Reebok, Auia, Adidas, Converse, Mito, Ellesse, Boreal, Libero, Quicksilver, Le coq sportif, Millet, Saucony, L. A. Gear, etab.

Kontzeziño kalea, 8 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 12 Faxa: 79 92 42

BRANKA taberna

Zarugalde, 1 ARRASATE Tfnoa: 79 21 13



Txutak

Berriz ere partiduak suspenditu

Izugarrizko gol pila sartu zion *Los Manchass* taldeak *Expert* taldeari, 18, hain zuzen ere. Aurreko emaitza hori eta hainbat partidu suspenditzea izango lirateke joan den asteburuan gertatutakotik aipagarrienak. Partiduak suspenditzearen errua nori leporatu? Auskalo! Arazoa Iturripeko Kiroldegi berrian eman zen. Futbito-partidu bat jokatzeko ari zirenean, eta dirudienek, ordu horretan eskubaloi taldeari zegokion Iturripeko kantxa erabiltzea. Ondorioz, orduan jokatzeko ari zirenean bertan behera utzi zen, baita ondoren jokatu behar zutena ere.

Aste honetan Zaldibarko Futbito Txapelketako antolatzaileek AUKEAko ordezkariekin bildu dira, joan den asteko ihardunaldian

gertatutakoa berriro gerta ez dadin. Ea bada gauzak konpontzen diren eta txapelketak martxa ona hartzen duen.

Txapelketari berari dagokionez, esan behar da orain artean talde sendoenak, hau da, ez dutenak ez partidurik galdu ezta berdindu ere, honako hauek direla: *Fosforos, Los Motz* eta *Artzankos Udalaiz*. Aipatutako ondoren, egin dutenaren arabera, honako hauek izango lirateke: *Arrasate Kristaldegia, Adobe, La Banda, Potroak Lorategi, Navarros, Gnu Seguros Bilbao, New Laso Arregi, Adelaida, Notxingan Florest* eta *Arrasate Kirolak*.

Onenak ezezik, txapelketako txarrenen berri ere eman behar da eta oraindik partidu guztiak galdu dituztenak hauek dira: *BDL, Talleres San Josepe, Oleee!* eta *Whiskeria Linde*. Berdinketa bat bakarrik lortu dutenak, berriz, hauek: *Koxkas, Expert, MKA, Txintxes Osorik, Sokoakoak* eta *Bayer de Lenitz*.

DATORREN ASTEBURUAN

LARUNBATA (Zaldibar)

M. K. A	Tobus
Ganbelas	Jo ta akabau
Sibilus Rover	Fasprint
Los Motz	Potroak Lorategi

IGANDEA (Zaldibar)

Maria del Monte	Navarros
Danok Lagun	Gau azkenak
Txintxes Osorik	Oleee!
Tronkoteak	Uglys


Datorren astean atzeratutako partiduak bakarrik jokatu dira. Izan ere, antolatzaileek txapelketa normaldu nahi dute eta talde guztiak partidu-kopuru berbera jokatuta izatea lortu nahi dute. Joan den ostiralean hori lortzeko ahaleginak egin zituzten, baina partidu gehiago suspenditu zirenez, txapelketa hankaz gora gelditu da. Iturripeko kantxako erabileraren arazoa konpondu arte zail izango zaio Zaldibarko Txapelketari ohizko martxa hartzea.



Foruen

Gure berezitasuna: rabak

Foruen Plaza, 2 Tfnoa: 79 06 16
ARRASATE




EGIDO

Automobilarentzako
ordezko piezak

Lagaria Pabilioa. ARRASATE. Tfnoa: 79 62 11



BETI SEGURU

 MIKEL LASA
Aseguru-artekaria

Maalako Errabala, 33 etxabea. ARRASATE
Tfnoak: 79 69 00 / 79 69 43

Osorik pub

Ignazio Zuloaga kalea. Arrasate

Javier Armendariz

Izarrak argiztatzen



Javier Armendariz, nahiz eta Iruñean jaio, urte askotan Arrasaten bizi izan da. 31 urte dauzka, Arrasateko Eskola Profesionalean Lanbide-Heziketa ikasi zuen mekanika adarretik. Gaur egun, Madrilen, argiztapen teknikari gisa lanetan dihardu.

— Nola hasi zinen lan honetan?

— Madrileko ezagun batzuk deitu zidaten argiztatzako enpresa bat muntatzeko asmotan zeudela eta horrela 83ko udan jira bat egiten hasi nintzen. Hura bukatu ondoren, lanak jarraitu egiten zuen eta gelditu egin nintzen.

— Nola ikasi zenuen lan honetan?

— Ez da eskola baten ikasten den zerbait; gaur egun honi buruzko ikastaroak badaude, baina ikasteko era onena teknikariaren laguntzaile izatea da, arotzerian ikasten den moduan.

— Jende askok diharduzue lan honetan?

— Oso gutxi gaude eta gainera aplikazio ezberdinak daude: telebista, antzerkia, zuzeneko ikuskizun musikalak eta beste gauza asko; esate baterako, enpresetako konbentzioak, auto baten aurkezpena, aldizkariak, egunkariak, eraikuntzak, moda-pasarelak, hauteskunde-kanpainak, etab.

— Zein talde musikalekin lan egin duzu?

— Esan beharko nuke zeinekin ez dudan lan egin, zortzi urtetan jende askorekin lan egin bait dut. Egin ditudan jirak hauek izan dira: Tino Casal, La Mode, Paloma San Basilio, Bertin Osborne eta Los Ilegales-ekin 85ean; Los Hombres G-ekin 86an; Radio Futura-re-

kin bi urtetan aritu nintzen, El ultimo de la fila, Siniestro total, Sabina, Ramoncin, gero noizbehinka lan egin dudan jendearekin amaiezinezko zerrenda daukat.

— Jende horrek asko eskatzen dizu?

— Talde musikalek aurrekontu bat ematen dute eta horren arabera diseinu bat egiten da, eta gustatzen bazaie kontratua egiten dute; taldeek ez dute aurrez pentsatutako planik; antzerkian bai, zuzendariak agintzen du eta testuaren arabera antolatzen nola argitu.

— Lan honetan diru asko irabazten da?

— Bizi modua aurrera ateratzeko adina bai, baina nik esango nuke ez dela diru askorik irabazten.

— Nola ikusten duzu lan honetan Euskadiko maila?

— Hemen egiten da lan baina maila txikiagoan, dena dela, denborarekin gero eta gehiago egingo dira horrelako gauzak. Azkenean ohi-tura-kontua da. Hemen ere badaude enpresa batzuk honetara dedikatzen direnak; baina alde batetik, oso musika talde gutxi daude, gehienak Madrilen daude edo bertara doaz Madrilen gaudelako argiztapen-teknikari gehienak; eta bestetik, gauza ez-

berdinak argitzeko, lehen aipatu ditudan modukoak esate baterako, ez dago ohiturarik.

— Askotan etorri zara hona lan egitera?

— Ez, gutxitan, hona musika-talde gutxi etortzen da eta; halere, ETBrako egin dut lan, Jose Luis Morenoren programarako, baina hauek ere noizbehinkako lanak dira.

— Atzerritik datozen taldeek Estatuan jo behar dutenean, nola egiten dute? Beraien ekartzen dute dena edo teknikarietara deitzen dizuzte?

— Hona etortzen direnean modu ezberdinetan etortzen dira; batzuek munduan zehar jira handi bat egin behar badute dena ekartzen dute, ekipoa, teknikariak, sukaldariak...; beste batzuk ekitaldi pare bat egitera datoz eta orduan teknikariak bakarrik ekartzen dituzte; eta beste batzuk ezer gabe etortzen dira, orduan hemen prestatuta dagoenarekin konformatu behar izaten dute. Kontratua egiten dutenean, argiztapen-enpresa bati, soinu-enpresa bati, material guzti hori garraiatzeko beste bati eta azkenik material hau erabiliko duten teknikarietara deitzen diete.

— Gerorako, zer asmo duzu?

— Honetan jarraitzeko asmoa dut, ezagutzen ez ditudan gauzak ikasten joatea, antzerkia esate baterako; telebista, berriz, ez zait horrenbeste gustatzen, oso lan mekanikoa da, beti leku berdinean egon behar da eta niri gustatzen zaidana leku bategatik bestera ibiltzea da. Negu honetan antzerkia egiteko asmoa dut, ahal badut behintzat; kontratua egiteko, izena emango dut konpainia batean, baina laguntzaile-lanetan hasiko naiz, poliki-poliki lana ikasteko.

— **“Estatuko rock-talde ospetsuenekin egin ditut argiztapen-lanak”**

Kirol berriak: sentsazio ezezagunen bila

Betiko kirolean oinarrituta egon arren, azken urteetan kirol-mota berriak asmatu dira. Rafting-a, puenting-a, Parapentea, ur-bizietako piraguismoa, goming-a, ibaien jaitsierak... eta beste hainbat izen berri ohizko bilakatzen ari zaizkigu. Moda berri honek Arrasaten ere aurkitu du jarraitzailerik; ez gutxi gainera.

Zirraren bila

Kirola egiteaz gain, ezezagunak eta oso gogorak diren sentsazioak bizi ahalizatea lirateke aipatutako kirolak modan jartzeko arrazoi nabarmenena. Kanpotik begiratzuz gero, arrisku handia duten kirolak dirudite. Ia astero horretan dabilzanekin hitz egin ondoren, ez dago lehen aurreritzi hori baiezia dezakeen daturik.

Berez oso desberdinak izanda ere, hasieran aipatutako kirolen artean dagoen lotura bereziena, naturarekiko sortzen den harremana izango litzateke. Aireaz, uraz eta lurraz baliatuz, ausardia apur bat besterik ez da behar sentsazio berriei jabetzeko.

Batek baino gehiagok pentsa dezake kirol horietarako aparteko prestakuntzarik ez dela behar; besteren batzuek, horrelakoak egiteko izugarriko ikastaro bereziak

egin behar direla usteko dute. Kirol bakoitzak bere berezitasunak ditu, baina orokorrean esan daiteke oinarriko ikastaro bat egin eta gero, hasieran aipatutako edozein kirolean parte har daiteke-

ela. Eta batzuetan ikastarorik ere ez da behar.

Puenting-a

Puenting-a aparteko prestakizunik behar ez

duen kirol horietakoa da, kirola bada behintzat. Penduluaren sentsazioa bizitzeko, zubi altu eta zabala eta soka pare bat nahikoa dira. Hone tan ibili direnek diotenez, jauzia egin aurretik, beldurraren antzerako zerbait sentitzen omen da. Salto egin eta gero, penduluaren mugimendua hasten den une berean, aurrez izan zitekeen tentsio eta beldurraren ordez lasaitasun handia sortzen da. Kirola den edo ez? Ba, argi dago jauzia egiteko tokiraino oinez joanez gero, kiroltzat har daitekeela; baina, salto egitea besterik ez bada, ez dirudi kirola izan daitekeenik.

Segurtasunari dagokionez, orain artean puenting egiten eman diren istripuak oso gutxi izan dira. Izan ere, erabiltzen diren eskalada sokak seguruak baino seguruagoak dira. Bistan dagoenez, merkea ere bada.

Parapentea

Airea utzi gabe, baina hainbeste lotura barik. Betidanik gizakiek hegaztiak




Arrasaten bada makina bat jende parapentean maiz ibiltzen dena.

bezala hegan egiteko gogoia izan dute. Hegaztiak imitatzeko horretan azken aldian parapentea eta delta-hegoak asmatu dira. Delta-hegoak garestiak direnez, parapenteak Deba Garaian hedapen handia izan du. Arrasaten bertan, bada horretarako hogeitabost-hogei hamar laguneko talde bat.

Puenting-aren kasuan bezala, kiroltzat har daiteke, baina bakarrik jauzia egin behar den tokira oinez joaneko gero. Jende askok Land Rovera erabiltzen du mendi gainetara hurbiltzeko, baina kirolariaren ikuspegitik egokiena zortzi-bederatzi kilometroko parapentea motxilan hartu eta oinez abiatzea da. Parapentea egiten hasi nahi duenari, ezinbestekoa zaio oinarrizko ikastaro bat egitea. Deba Garaian oraindik ez dago irakasten den tokirik, baina badirudi Oñatin eskola bat jarriko dutela. Hori jarri artean, edo kanpora joan edo lehendik dabilen norbaitekin ikas daiteke. Ikastaroa eginda ere, badaezpada eta orain artean istripurik ia ez bada egon ere, ez da izaten gomendagarria bakarrik aritzea.

Piragua eta balsak

Airetik uretara, ur-bizietako piraguismoak eta rafting izenez ezagutzen diren modalitateak zaletu asko aurkitu dituzte eta azken urteetan, baita ibaien jaitsierak ere. Piraguismoko oinarriak Urkulun bertan har



Piraguismoa gehienetan ibaietako tramo ezagunetan egiten dira

daitezke; asteburu batean arraunean nola egin eta piragua nola manejatu ikas daiteke. Hortik aurrera egin nahi duenak derrigorrez Pirineo aldera jo beharko du, Nafarroara esate baterako, hemengo hibaiek zeharo kutsatuta daude eta.

Behin Nafarroara iritsiz gero, piraguismo zein rafting-a egiteko aukera zabalago dago, horretan dabilzan taldeak ere ugari dira eta. Udaberrian eta udan egin daitezkeen kirolak dira aipatutako biak, udazken eta negu

aldean ura hotzegia dagoelako. Normalean, ibaien tramo ezagun eta kontrolatuetan egiten dira bai rafting-a eta bai piraguismoa, ia istripu arriskurik gabe. Behintzat azken hiru urteetan, Nafarroan ez da istripu bakar bat ere izan.

Telebistan ikusita beste gauza bat badirudi ere, piraguismoa eta rafting-a oso kirol nekagarriak dira eta ura oso gertu dagoenez, erabat zirrargarriak. Zortzi kilometro egiteko, gutxienez hiru ordu egin beharra dago

arraunean, hortik atera kontuak. Piragua menderatzen ikasteko asteburuko egonaldia batek 8.000 PTA inguru balio du, piraguak berak 60.000tik gora, ahaztu gabe gomazko trajea ere ondo datorrela hotzik ez pasatzeko. Rafting-ak, lagun-talde handi bat eramaten duen balsak, 800.000 PTA balio ditu; beraz, normalean alokatu egiten da bidaiak bakoitzeko.

Ibaien jaitsierak ura eta lurra nahasten ditu. Hibaiek jaiotzen diren tokietaraino joan eta sokak erabiliz, ibaietako hormetan behera jaitsi behar da. Eskaladako sokak, rappelatzen jakin eta gomazko trajea izanez gero, erraz egin daitezkeen gauza da, udan baino neguan hobeto. Agian horregatik, kirol hau egiteko, eskaintza zabalago dago. Hori bai, zailtasunari dagokionez, desberdintasun handia dago ibai batetik bestera.

Kirola osasuna den momentutik, garrantzitsuena inoiz bakarrik ez ibiltzea da, arriskua egon, badagoelako eta harreman politak egin daitezkeelako. Beste edozein kiroletan bezala, segurtasun neurri egokiak hartu eta norbera noraino iritsi daitezkeen jakiteak eragotz ditzake era guztietako istripuak.

• Kirol berri gehienetan ibiltzeko, oinarrizko ikastarotxoak egitea ezinbestekoa da.

**ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA**

J. Carlos Guerra, 1 Tfnoa: 79 91 64

BAZAR
TOKI ON



Futbito-talde ofiziala Arrasaten

Aurten lehenengoz, Arrasateko mutil talde bat ofizialki futbitoan jokatzeko ari da, Arabako ligan, hain zuzen ere. Orain artean ondo dabilta arrasatearrak, jokatuak bost partidetatik hiru irabazi, bat berdindu eta beste bat galdu dutelako. Construcciones Brues taldeak, hori bait da Arrasateko taldearen izena, beste hamabost talde gainditu be-



harko ditu kategoriaz igotzeko. Talde osatzen dutenak: Narciso Pavo, Eduardo San Vicente, Txema Elizaran, Teri Cid, Eugenio Arana, Eugenio

Garcia, Iñaki Corrak, Jose Antonio Beitialaringoitia, Javier Marcos, Javier Gutierrez eta Alex Martiarena.

Arrasatearrak Behobia-Donostia lasterketan

Loramendin izena eman dutenen arabera, hirurogeitamaika arrasatearrek hartuko dute parte datorren igandean Behobia eta Donostia artean burutuko den lasterketan. Izenak, ondorengo hauek:

- Xabier Arenaza.
- Jose Luis Eguren.
- Eukeni Olabarrieta.
- Julen Fernandez.
- Ramon Sebastian.
- Juan J. Barrutiabengoa.
- Iñaki X. Zarandofia.
- Abel Mansoa.
- Pako Arbonies.
- Iñaki Arizmendiarieta.
- Xabier Elexpuru.
- Javier Mentxaka.
- Jesus Lonbide.
- Juan Mari Amilburu.
- Jorge Oiarbide.
- Pedro Azkargorta.
- Armando Auslestiarte.
- Juan Mari Zulaika.

- Iñaki Gartzia.
- Jose Maria Guridi.
- Jose Ramon Belastegi.
- Jose Luis Ugalde.
- Telesforo Molero.
- Angel Morales.
- Vicente Irazola.
- Jesus Alberto Urrutia.
- Jose Maria Barrena.
- Joseba Gonzalez.
- M. Gurutze Orbegozo.
- Ignacio B. de Guevara.
- Jose Antonio Moraleja.
- Celestino Fernandez.
- Pazka Murillo.
- Juan Antonio Talledo.
- Xabier Ureta.
- Xalbador Zubizarreta.
- Jose Garcia.
- Faustino Martinez.
- Aitor Atxa.
- Josu Zubia.
- Haritz Berasaluze.
- Aritz Iturbe.
- Aitor Etxezarreta.
- Luis Larrañaga.


- Jose Luis Arroiabe.
- Enrike Kabiketa.
- Pedro Cruz.
- Paulo Markuerkiaga.
- Luis Zabala.
- Alfonso Luelmo.
- Jose Mari Larrañaga.
- Alex Hernandez.
- Befat Markaide.
- Mikel Olazar.
- Juan Pablo Balerdi.
- Crispin Valdezate.
- Ramon Jausoro.
- Joseba Larrinaga.
- Estanislao Mulas.
- Jokin Iturriotz.
- Patxi Kortabarria.
- Victor Cantero.
- Josu Lanzos.
- Cesar Diez.
- Lorenzo Alonso.
- Juan Jose Primoy.
- Xabier Mendiadua.
- Jesus Maria Albistur.
- Xabier Arkauz.
- Mikel Larunbe.
- Iñaki Jauregi.

Hurrengo partidua

Berdinketa besterik ezin izan zuen lortu Mondrak joan den asteko partiduan, Azpeitiako Lagun Onak taldearen aurka. Azpeitiarrek nahiko partidu ona jokatu zuten; beraz, eraman zuten puntua ondo merezia zeukatela esan daiteke. Arrasatearrek, gaizki jokatu ere, gol-aukera asko galdu zituzten; normalean hutsik egiten ez duten gizonen hankean gainera, Txosa eta Aranburuzabala, esaterako.

Mondra taldearen inguruan bada besterik aipatzeko. Izan ere, Gerardo taldean ez egotea nahi baino gehiago igertzen da azken partiduetan. Gogora daitekeenez, partidu batean beste bati kolpe bat ematearren, bidali egin zuten arrasatearra eta ondoren zigortu. Honez gero da mututa ere izango da, baina gauza horiekin kontu handia izan behar da, ondorioak ez bait dira pozgarriak.

Larunbatean arrasatearrek Abetxukoren aurka jokatuko dute Gasteizen. Abetxuko azken postuan dago eta normalean Mondrak irabazi beharko luke. Hala ere, kontuan hartzekoa da gasteiztarren futbol-zelaia, hondarezkoa izateaz gain, oso txikia dela. Gainera, Abetxuko-zaleek presio handia egiten dute kanpotik joaten diren taldeen gain eta jokalariek ere ostikokalari-fama dute.




LURRINDEGIA

ERTZ

OPARIGAIK

Ferrerias, 28-B ARRASATE Tfnoa: 79 08 70

IBARRA Garajea S.A.



**EBRO
NISSAN**

Garajea
Automobil-konponketa
Garabi-zerbitzua

AMAIA LUENGO

Saskibaloiko kategoria berrian

PODIUMA



Amaia Luengok kirola betidanik izan du gustoko. Zerbait aukeratu behar zuela eta, saskibaloian jokatzearabaki zuen. Atletismoan eta futbolekin ere jokatu izan du, beti Arrasateko taldeetan. Orain ere, hala dabil, emakumezkoen Centraljet Euskal Air taldean. Printzipioz, Amaia fisikoa ez da saskibaloian jokatzeko egokiena, 1.65 metro bakarrik neurtzen dituelako. "Txiki samarra naiz egia da, baina horrek ez dauka erremediorik. Hala ere, txikiagoak badira".

Gehienetan hegaletik jokatzen du eta batzuetan jokoa antolatzen ere bai. "Gustoen hegalean ibiltzen naiz. Antolaketarako ez dut aparteko trebetasunik, ezkerreko eskua ez bait dut gehiegi menderatzen. Jaurtiketa hirukoitzetan ere ondo-samar ibiltzen naiz. Saskibaloia hasieran ez zitzaidan beste kirolak baino gehiago gustatzen, baina orain bai".

Emakumezkoen Centraljet Euskal Air taldeak maila berria estreinatu du aurten, estatu mailako bigarrena. Behar bada horregatik, Amaiak ez du taldea behar zuen bezain ondo ikusten. "Parekotasun handia dago talde guztien artean eta markagailua aurka

ikusten dugunean, oso urduri jartzen gara, bakoitzak bere kontu jokatuz. Uste dut taldeak duen hutsik nabarmenena horixe dela. Hala ere, maila batetik bestera ez dago hasieran uste nuen diferentziarik; badago, baina ez oso handia. Oraingoz ondo gabiltzala esan daiteke eta kategoria berriari eutsiko diogula uste dut".

Agian, joko-mailan ez, baina entrenamenduetan ondo nabarmendu da kategori aldaketa. "Denboraldiari hasiera eman aurretik egunero entrenatzen ginen. Orain ez, astean hiru aldiz bakarrik, konpetizioa bera nahiko entrenamendu gogorra delako".

Beste kirolekin bezala, saskibaloian ere emakumezkoak lehiatzen direnean Arrasaten hutsik handiena ikusleek egiten dute. "Batzuk etortzen dira partiduak ikustera, baina mutilen partiduak ikustera joaten diren ikusleekin konparatuz gero, ezer ez dira".

◆ Pilotan ondo antzean

Gipuzkoako Pilota-Taldeen arteko Txapelketan, hiru partiduei aurre egin behar izan zieten Arrasateko pilotariak. Ostiralean, gaztetxoak Bergararren aurka jokatu zuten, hiru partidutatik bi irabaziz: alebinetan 18-15, kadeteetan 18-10 eta infantiletan 10-18. Larunbatean, nagusiek Zumarragako taldea izan zuten aurrean; hiru partiduetatik, bi galdu: jubeniletan 22-11, juniorretan 3-22 eta seniorretan 21-22. Azkenik igandean, berriz gaztetxoekin txanda, elgetarren aurka. Hirutik bi partidu arrasatearrentzat: alebinetan 14-18, infantiletan 18-12 eta kadeteetan 18-6.

◆ Saskibaloian porrotak

Ez neskak ezta mutilak ere, ez ziren gauza izan garaipenik eskuratzeko joan den asteburuko partiduetan. Centraljeteko mutilek Juveneko donostiarren aurka jokatu zuten eta 88-68 galdu zuten, arrasatearrak ez bait ziren batere fin ibili. Datorren astean, Centraljet taldeak Leioaren aurka jokatuko du. Centraljeteko neskak mutilak baino hobeto ibili ziren, baina Logroñoko Lestonnac taldeko beteranoak sei puntuko abantailari eutsi zioten eta garaipena eraman. Gernika taldea izango da Centraljeteko nesken hurrengo arerioa.

◆ Mondrako neskek lehen partidua galdu

Mondrako neskei iritsi zitzaizen aurtengo denboraldiko lehen porrota, Eibarren, 3-0. Markagailuak beste zerbait pentsarazi badezake ere, partidua oso parekatua izan zen. Arbitroak, eibartarra bera, zerikusi handia izan zuen azken emaitzan, etxekoan alde jokatu bait zuen. Datorren asteburuan Orioko taldeak bisitatuko du Atxabalpe eta printzipioz garaipenak arrasatearrentzat izan beharko luke.

ZUBIZARRETA
TAILERRAK

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE Tfnoa: 79 15 65

Hilbera
kafetegia

Uribarri Etorbidea
ARRASATE

Altzariak
Diseinua
Apainketa
M
ARENAZA

Bizkai, 1 ARETXABALETA Tfnoa: 79 08 07

Arriskua airean

Lingurugiroa eta honek osasunean duen ondorioa gero eta gehiago arduratzen gaituen gaia da. Ez da harrizkoa horrela izatea noizbehinka sortzen diren albiste kezkarriekin.

Gure gizarte aurreratu, industrialdu eta kontsumitzailean, gero eta ugariagoak dira elekratresnak; izan ere, hauek inguraturik gauzkatu, ez bakarrik etxe barruan, baita kalean ere.

Ildo honetatik, minbizi edo kantzerraren eta eremu elektromagnetikoen arteko erlazioa nabarrian jartzen duten azterketa epidemiologikoak nahikoa dira jadanik.

Lehenengoa 1979. urtean



egin zen, eta bertan ikusten zenez, tentsio altuko linea elektrikoek eta transformazio-zentralen inguruan bizi diren pertsonen besteek baino bi edo hiru bider arrisku handiagoa dute minbizia garatzeko.

Era berean, badirudi eremu elektromagnetikoko frekuentzia txikia erabiltzen duten tresnak —hau da, edo-

zein motatako frekuentzia altu edo aldizkakoa erabiltzen duten elekratresnak— ere arriskutsuak direla. Ipar Amerikako bi aldizkari, *Time* eta *Fortune*, izen handikoak biak ere, izan dira alerta eman dutenak. Orain arte dauden datuak erabatekoak ez badira ere, “sujerenteak” direla onartzen dute industria elektrikoaren ordezkariak, eta

adostasun hau ez da gutxi datorrenagandik etorrira...

Eremu elektromagnetikoen eta kantzer-mota batzuen arteko kausa-efektu erlazioa baieztatzen bada, litekeena da ondorengo urteetan ingurugiro-gai garrantzitsuen izatea; izan ere, denok gaude, salbuespenik gabe, neurri handi edo txikiagoan kutsadura honen menpe etxean, lanean, kalean: tentsio altuko lineak, haizagai luak, manta elektrikoak, iratzargailu elektrikoak, ordenadoreak, ile-lehorgailuak, telebistak, bizarra kentzeko makina elektrikoak, mikrouhinezko labeak... Nor ez dago arriskuan?

EUKENI & ARANTXA

BIDEO-EMANALDIA

Indiana Jones arka galduaren bila

Tokia: Monterron Kultur Etxea


Eguna: azaroak 9

Ordua: arratsaldeko 4.30etan

Prezioa: 50 pezeta

Sarrerak: Monterronen

Antolatzailea: Arrasateko Udaleko Euskara-Batzordea




Batuta

Jabi Arizabaleta

Arrasaten jaio zen 28 urteko mutil honek bukatu berri du Unibertsitaterako sarbidea UNEDen. Hone-taz gain, musikako hainbat ikasketa egin ditu, bost kurtso solfeoa eta hiru kurtso tronpeta. Oso gaztea zela Arrasateko akademiara joan zen gitarra ikasteko asmotan baina irakasle baten eraginez eta berak ia klaseraino eramanda "tronpeta ikasi nuen. Ber-raren ustez, gero ere izango nuen gitarra ikasteko denbora, oso erreza omen zen eta".

Tronpeta ikasi zuenetik izan du toki ezberdinetan jotzeko aukera. Herrian bertan Txiripöt izeneko txar-rangan jotzen zuen. "Madrilen bi-zpahiru txarangetan jotzen aritu nin-tzen eta oso gustora gainera; Kortat-urekin ere jo izan dut, baina hori lagun arteko gauza zen. Los Pichones taldean hiru aldiz abestu dut; orain beste abeslari bat dute eta oso talde ona da".

Madrilera tronpeta-ikasketak hobetzera joan zen eta zazpi urtez bertan bizitzen gelditu zen; "hasieran



ikasten, gero lanean hasi nintzen" Jabik izan dituen esperientzietatik aipagarrienetariko bat Madrilen metroan tronpeta jotzen zuenekoia izan daiteke. "Esperientzia polita, baina aldi berean oso gogorra zen; polita, jende askorekin egoteko aukera zegoelako, eta gogorra, polizia beti atzetik zebilelako, gure ibilera ez bait zen legala. Hala urte bete pasa nuen; ordu pare bat goizean eta arratsaldean beste ordu pare bat akaso, zeren, ordu askotan tronpeta jotzea oso nekagarria da eta tira, nahikoa diru ateratzen nuen, hura zen nire bizibide bakarra".

Gaur egun Goikobalun ari da; berak ez zuen espero egunen batean horrelako koru batean abesterik; "gainera ez nuen espero hain polita izango zenik; oso gustora nabil, uste dut izugarritzko korua izatera iritsiko garela. Orain, jende gaztea, soprano eta tenoreak behar ditugu".

"Goikobalun soprano eta tenore gazteak behar ditugu"

Txio-txioak

■ Kantu Gregorianoan Aretxabale-takoek bi sari jaso Tolosan

Igandean Tolosako nazioarteko abesbatzen lehiaketan, gregoriano-alo-rrean, bigarren eta hirugarren sariak lortu zituen Aretxabaleta abesbatzak. Bigarren saria ahots grabeek lortu zuten, gizonaek alegia. Hirugarren saria, berriz, ahots zuriek, ume eta emakumezkoek. Aipatzekoa da, gregoria-noaren alor honetan lehenengo saria ez zela eman, epaimahaiaren ustez aurkeztutakoan artean ez zegoelako lehenengo sariak eskatzen zuen mailarik.



■ Eibarko abesbatzaren kontzertua

Azaroaren 8an, ostirala, Arrasateko San Frantzisko elizan, iluntzeko 8etan, Eibarko Sostoa abesbatzaren emanaldia izango da.



Berango



Sukalde-altzariak, mahaiak eta aulkiak

Erakusketa: Legarre pabiloia z/g, Gipuzkoa etorb. Tfnoa: 79 01 92 ARRASATE

Eta erreforma, zergatik?

Eskola gizartearen zerbitzura dagoela ulertuz, bertan, eskola-munduan, mugitzen garenok betebeharrak eta eginkizun berrien aurrean kokatzen hasita gaude gaur egun.

Ildo honetatik, behar honi erantzutera datorkigu **hezkuntz sistemaren aldaketa**.

Hemen agertzen den koadro honetan, gaur eskolari eskatzen zaion erronka eta irakasleei aurrean jartzen zaien funtzio berria adierazten dizkizuegu.

ESKOLA

Gizarte pluralista batean ez da helburutzat hartzen modu konkretu bateko pertsona egitea, **personaren beraren garapena eta heldutasuna** baizik.

Eskolak baloreetan hezi behar du, baina askatasunaren **barne**, ikasleari lagunduz **bere bizitzako baloreak izango direnak** aukeratzen.

Eskolak ezin du aparteko mundu bat izan, **bizitza bizitzen irakatsi behar du**.

Errealitateak izan beharko du etengabeko abiapuntu.

Hainbeste ezagupen eta hain azkar sortzen dituen gizarteetan, ezinezkoa da denak transmititzea. Horien beharra izango duenerako, ikasleari **ikasten irakatsi behar dio**.

IRAKASLEA

Hezitzailea

Irakasleak baloreen mundu zabal horretan jarri behar du ikaslea, **bakoitzari bere beharren arabera moldatutako tratamendua emanik**.

Motibatzaile eta animatzailea

Gaur inposaketak ez du balio. Bere personaren balioa eta komunikatzeko gaitasuna izango ditu tresnarik **balagarrienak**.

Laguntzaile eta orientatzailea

Ez da asko dakiena, **ikasleari ikasten laguntzen diona** baizik.



TXARO IRAETA HEZIBIDE



HITZALDIA



ACENOR: "Euskalduna" moduko beste bat?

Hizlaria: **Tomas Etxabe** (Sindikalaria historikoa)

- Gaiak:
- Birmoldaketa-planaren nondik-norakoak
 - Zer gertatuko da Aiara eta Hernanialdean?
 - Beharrezkoa da aipatzen den birmoldaketa? Noren interesak babesteko?
 - Kompetitibitatea ziurtatu behar da?

Azaroak 13, asteazkena / Arratsaldeko 7etan Monterronen



Mendiaren pribatizazioa

Animalia, belar, perretxiko, barraskilo edo horrelakorik estimatzen ez denean, mendietan zenbat gura egoten da. Baina zerbaitek jendearen atentzioa sortzen badu... akabo!

Estimazioa sortu dutenen artean ehizatzen diren hegaztiak eta gainontzeko animaliak daude. Hauek duten estimazioaz jabetzeko, dituen "jarraitzaileak" neurtzerik baino ez dago. Ondorioz, ehiztariak "antolatu" egin dira eta ekintza horietarako mendiak, kotoak, arroak, harranak "erosi" dituzte beren zaletasuna nonbait gauzatu ahal izateko.

Nork ez du bada ikusi "ehiza-kotoa" kartela bazter guztietan josita?

Baina "pribatizazio" horretaz gain, bada beste bat ere harridura handia sortu duena bazterretan. Kotoa iragartzen zuen kartel bat irakurtzeko aukera izan nuen, baina kartelak ez zuen ehiz



Otzara bete perretxikoz harro ageri da erretraturako Belaguako artzain hau. Bera ere perretxiko-kotoko bazkidea da.

konturik aipatzen; printzipioz, harrigarria! zeren koto hitza beti egon izan bait da

ehizarekin lotua. Hau zen kartelak zioena: "Perretxiko eta mendi-errekurtsoguztien



kotoa". Gure artean galdera bat sortu zuen hain kategorikoa den kartelak: akotatuta ote dago mendian barrena dagoen iturriko ura ere?

Badakigu abusoak egon izan direla gaztainen eta ulertzen dut gaztainadiko jabea izatea bere gaztain produkzioaren jabea. Baina ulertzen ez dudana da zergatik den ehiztari bat bere koto gainerik pasatzen den uso baten jabea edo baserritar bat bere jabegoko pinuen ipurdietan sortu diren pinutelen. Jabego pribatuak baditu bere eskubideak, baina datozela neu atxilotzera poltsa bete gibelurdinekin harrapatu nautelako. Je!

HANKAMOTZ

3 HITZALDI

**Sexualitatea eta afektibitatea bikotean
(Gizonetzkoen eta emakumezkoen ardurak bait da)**


Emalea: Julen Arregi (Psikologo klinikoa)

Azaroak 14, 21, eta 28 (Ostegunak)

Arratsaldeko 7etan AEDko lokaletan (Pablo Uranga)



AEDko EKIN emakume-taldea



KONTUZ!



TELE

**Informazioa
eskatzeko
dei egin
77 08 15
tfno.ra**

**ZATIKAPENAK
ETA GRUA**

• Desguaces Bergara grua
€ 79 76 33 eta 76 35 47

Profesional,
merkatari,
enpresari! Zure
zerbitzuak
arrasatear guztien
etxeetara iristea
nahi baduzu, ATBko
TELETESTUA da
behar duzun
publizitate-bidea.

Pintore, iturgin,
igeltsero eta beste
edozein
profesionalen
zerbitzuak behar
badituzu, jo ezazu
ATBko TELETESTUra,
behar duzuna
hantxe aurkituko
duzu eta. Egunero
zure zerbitzura,
goizeko 9etatik
arratsaldeko 8ak
arte.

TES

**TELEBISTA
SALMENTA ETA
KONPONKETA**

• Nabarro Elektronika
€ 79 93 69

TUA

**SOINU
PROFESIONALA**

• Soñua
€ 79 25 96

BAZARRAK

• Tokion
€ 79 91 64

JANTZIDENDAK

• Markiegi € 79 15 32
• Arriaran € 79 15 32
• Gili-Gili € 79 94 57

TABERNAK

• Muxibar € 79 79 65
• Ezkiña € 79 20 20
• Sokoia € 79 96 25
• Irati € 79 56 11
• Bar San Andres
€ 77 12 65

BAINUAK

• Iker
€ 79 99 42

ETXEBIZITZAK

- **Bi ikasle pisu bila dabilta Donostian.** Dei egin 79 5382 tfnoa.ra bazkalordu edo afalorduetan.
- **Erguinen etxebizitza salgai.** Amueblatua, gas naturala, 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela, 2 terraza. Eguzkitsua, bista ederrekoa. Garajea aukeran. Tfnoa: 79 93 42.
- **Etxebizitza alokatuko nuke Aretxabaletan ala Eskoriatzan.** Tfnoa: 79 59 60. Josu.
- **Bilbon ikasle-pisua osatu nahi nuke.** Tfnoa: 79 24 51. Nerea.
- **Hiru langile gara Arrasaten alokatzeko pisu baten bila.** Tfnoa: 79 51 49.
- **Bi oheko gela alokatzen da.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Etxebizitza baten bila gabiltza Arrasaten.** Dei egin lanorduetan 79 02 11 (Alberto) eta 79 36 11 (Izaskun) tfno.etara.
- **5.000 PTA irabazi nahi badituzu lan samur batean dei egin 79 03 88 tfno.ra. Gaueko 9.30etatik 11etara arte. Joseba**

- **Fisikako partikularrak behar dira BT12. kurtsoa.** Tfnoa: 79 37 60.
- **Injinierutzako ikasle batek klase partikularrak emango lituzke (BUP, COU).** Dei egin 88 28 63 Tfno.ra. Aitor.
- **Ingeleseko klase partikularrak emateko irakasle behar da.** Tfnoa. 77 12 41 Agurtzane.
- **Etxeko lanak egiteko eta umea zaintzeko prest dagoen emakumea behar da.** Dei egin arratsaldeko 8etatik aurrera 79 71 86 tfno.ra. Marisol.
- **FP2 eginda eta montaje elektrikoan esperientzia duen mutil bat edozein instalazio egiteko prest: goiargituak, automatak, automatismoak, etab. Prezio erdian.** Harremanetarako dei egin 77 10 91 tfno.ra.
- **Etxeko lanak egin edo umeak eta pertsona nagusiak zainduko nituzke.** Tfnoa: 79 54 03
- **Neska euskalduna behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko.** Tfnoa: 79 90 57. Aretxabaleta.
- **Eguerdiko 12.30etatik ordu batetara euskarazko mintzapraktika klaseak emateko Arrasateko pertsona bat behar da.** Dei egin 76 15 76 tfno.ra arratsaldeko 8.30etatik aurrera. Reyes.

- **Kanpineko hozkailu berria salgai.** Dei egin 9etatik aurrera 79 90 55 tfno.ra.
- **Itzul eta Sor saileko liburuak salgai.** Merke eta berriak. 9-13 urte bitarteko haurrentzat. Tfnoa: 79 80 91. Ander.
- **Cibro-Kamin berogailua egoera oso onean salgai.** Tfnoa: 79 56 46.
- **Charli Mousser hamabi puntatako granpoiak,** Serval lo-zakua eta espelaz (boj) egindako nafar dultzaina salgai. Tfnoa: 77 09 72
- **Oso egoera onean dagoen eta egurrez nahiz ikatzez dabilen berogailua salgai.** Tfnoa. 79 45 80
- **Orbea furia bizikleta oso egoera onean salgai** 10.000 PTAan. Dei egin 79 41 71 tfno.ra 8etatik aurrera.
- **Logelako altzariak, armairu, komoda etab.** (somierra eta koltxoia ezik) egoera onean eta merke. 8etatik aurrera 79 41 71 tfno.an.
- **Olivetti Linea 98 idazmakina salgai.** Tfnoa: 79 11 44. 9etatik aurrera. Miren.

LANA

- **Emakume euskalduna haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest.** Tfnoa: 79 91 30.
- **Lanak ordenadorez inprimatuko nituzke.** Dei egin 7etatik 9etara 79 58 72 tfnora.
- **Bestaldeko irakasle batek frantseseko klase partikularrak ematen ditu.** Dei egin bazkalorduetan 79 20 24 tfno.ra.
- **OHoko klase partikularrak emateko prest.** Tfnoa: 79 19 19.
- **Klase partikularrak ematen dira (fisika, kimika eta matematikak).** Dei egin 77 13 95 tfno.ra.
- **Emakume euskalduna umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest.** Tfnoa: 79 07 73.

- **Igeleseko klase partikularrak behar ditut.** Dei egin 8etatik aurrera 79 72 92 tfno.ra. Marisol.
- **Zure lana utzi barik 10.000 PTA irabazi nahi badituzu, dei egin 77 14 81 tfno.ra.**
- **Neska prest etxeko lanak eta garbiketa orokorrak egiteko.** Tfnoa: 79 98 19

SALEROSKETAK

- **Ordenadore pertsonala salgai.** Eredua: Amstrad CPC 6128 diskete unitatekoa (Basic-endako berezia). Oparia: telebista bihurtzailearekin, jokuak eta bihurtzailera elkartutako iratzargailua. Dei egi 79 13 77 tfnora.

DENETARIK

- **Egunero Bilbora (Leioara) joateko kotxea behar dut, gastuak erdibana.** Dei egin gaueko 11etatik aurrera 79 66 99 tfno.ra.
- **Abuztuaren 2an spaniel-breton arrazako txakurra desagertu zen.** Izena Mendi (txuria eta marroia da). Zerbait badakizu dei egin 79 24 66 tfno.ra.
- **Egunero eguerdiko 2etarako Eibarren egon behar dut.** Norbait eramateko prest badago dei egin dezala 79 22 63 tfno.ra (gaueko 9.30etatik aurrera).
- **Bilbora (Leioara) arratsalde zazoaz, dei egin 79 22 63 tfno.ra, gaueko 9.30etatik aurrera.**



ARRASATEN HILDAKOAK



- Faustino Sarazibal Larrauri,** urriaren 29an. 75 urte.
- Maria Arrieta Gabilondo,** urriaren 31n. 82 urte.
- Maria Zeziaga Olalde,** urriaren 31n. 81 urte.
- Ageda Azkargorta Gisasola,** urriaren 31n. 78 urte.
- Oloria Landa Urrutia,** azaroaren 1ean. 61 urte.
- Martin Ajuria Gurrutxaga,** azaroaren 4an. 78 urte.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDE DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15

Zer nahiago?

Tomas Axpe Errastikoa tabernakoa



- **Hitz egin ala entzun?** Nire lan-motagatik asko hitz egin behar izaten dut eta nahiago dut hitz egitea entzutea baino.
- **Kafea ala kubatak atera?** Kafea, kubatak ez ditut asko ateratzen.
- **Horoskopoa ala Tarot-a?** Biak gutxi, baina bat aukeratzekotan horoskopoa.
- **Maritxu Kajoji ala Santamasak?** Santamasak jai normalagoak dira.
- **Bertsolariak ala rock-a?** Bertsolariak.
- **Kobratu ala gonbidatu?** Kobratu behar denean, kobratu; eta gonbidatzeko beti prest.
- **Kirola egin ala ikusi?** Kirola egin, baina gehienetan ikustearekin konformatu behar izaten dut.
- **Erlojua, orratzduna ala dijitala?** Biak ditut, baina beti dijitala erabiltzen dut.
- **Barran egon ala mahaietan zerbitzatu?** Biak egiten ditut, baina barran gehiago egoten naiz.
- **Oporretan hotelean ala kanpinean?** Ahal izanez gero hotelean, askotan kanpinera joan behar izaten dugu baina...
- **Legatzaren kokotea ala buztana?** Dudarik ez, kokotea.
- **Mikel Laboa ala Antton Valverde?** Biak, baina Mikel Laboa gehiago.
- **Egunkaria ala liburu bat?** Liburu on bat egunkaria baino nahiago.
- **Igogailuan, bakarrik ala norbaitekin?** Segun eta zein den alboan doana.
- **Lo, pijamarekin ala gabe?** Pijama gabe.
- **Eskiatu ala igeri?** Eskiatu.
- **Abentura ala hankak lurrean?** Hankak lurrean edukita ere badaude abenturak, ezta?
- **Autoa ala Land Rover-a?** Autoa.
- **Ardo gorria ala beltza?** Normalean gorria, baina ardo beltz on bat nahiago.


Bertsotan

Gipuzkoako Bertsolari-Txapelketa

1
Gipuzkoako txapelketak du aztoratu ingurua izar bezala Lizaso hor da lasai erreaz purua gai seriotan jaun eta jabe Mendizabal ta Murua Peña, Euskitze eta Egañiak altxatu arren burua atxabaltarrik tartean bada ezer ez da segurua.

2
Atxabaltarrak hautsiko dute ziur pronostiko dena finaleraino helduko dira finalerditan barrena nahiz Arantzazu ez pasatzeak denoi eman digun pena txapelketaren azken emaitza ez ote da nabarmena Jon Sarasua txapelduna ta Aitor berriz bigarrena.

AMAIA AGIRIANO



Kabia altzariak

Gipuzkoako Etorbidea, 28 ARRASATE Tfnoa: 79 27 70

EPELDE

argazki-denda

Iturriotz, 24



1968. Santa Barbara

J

oan den asteko argazkiaren segida oraingoan ere: San Andreseko ikastolako bigarren promozioiko beste talde bat. Aste honetakoan, Ana Mari

Aranaren gelako haurrak dira; tokia eta data Santa Barbara parkea,

1968garren urtean. Argazkilaria, sinadurak argi uzten duenez, Valero zen. Zutik, ezkerretik eskumara: ezezaguna, Jose Mari Lezeta, Jon Urrutia, Angel Inda, Asier Fernandez de Arroiabe, Alberto Astondoa, Koldo Zubiaga, Xabier Garcia, Joseba Ormaetxea, Josetxo Garmendia, Joseba Eriz, Jose Luis Urribarren, Iban Lopez de Munain

eta Iker Etxabe.

Makurtuta, ezkerretik eskumara: Miren Bego Urribarren, Beatriz Garai, Jaione Anso, Miren Armendia, Bego Zubia, Itziar Gabilondo, Agurtzane Mondragon, Olatz Etxabe, Elena Etxabe, Amaia Irazola, Andereño Ana Mari Arana, Garbiñe, Elisabet Arregi, Amaia Garro eta ezezaguna.

Lore lurrindegia

Olarte kalea, 10 ARRASATE Tfnoa: 79 14 99

UGARTE

Industri hornidurak

Arrasate pasealekua
Tfnoa: 79 73 00 / 79 83 96
Telefax: 793412



ARIES

Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Baikor ari zara arlo guztietan eta benetan gustora sentituko zara zeure buruarekin. Ondo ikasiko duzu ezina eginez gauzatzen dela eta burukomin handirik barik gaudituko dituzu trabak.



LEO

Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra

Lehoia baino gogorrago ari zara denean zure nahiak betetzeko. Eginahalak egingo dituzu denera iristeko eta ordaina ondo merezitakoa izango da. Gustoko gauzetan ez omen dago aldaparik eta...



SAGITARIUS

Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Aukera ugari izango duzu, baina, daukazuna finkatzea komeniko litzazuke ezertan hasi aurretik. Bihozbera egongo zara zure maitea urruntzen ari delako eta duda-mudak sortuko dira erabakiak hartzerakoan.



TAURUS

Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Gehiegikerietan ibiltzeko arriskuan izango zara. Janariari eta zurrutari emango diozu penak ahazteko. Saia zaitez nagikerian ez erortzen, hori bait da daukazun ahulezietako bat eta.



VIRGO

Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra

Erabaki zuzenak hartuko dituzu arlo guztietan. Ondorioz dena hobera joango da. Kapritxoso samarra ere bihur zintezke eta kontu hartu beharko duzu. Zuhur jarraituko duzu.



CAPRICORN

Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra


Ipini txapela buruan eta ibili munduan. Abenturari zaude eta zeure patrikak ez duzu horretarako ematen. Ibil zaitez neurrian zulo handiren batean sartzea suerta liteke eta.



GEMINI

Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Tokian tokio arazoez hitzegitea lortuko duzu. Ondorioz lanean eta lagunarekin armonian egotea lortuko duzu. Barne-pakea izango duzu eta ederki lo egingo. Eraginor egongo zara.



LIBRA

Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Liluragarri egongo zara eta zu zeu ere konturatuko zara bai. Atseginago egongo zara eta armonian eramango dituzu harremanak. Finantzak aldiz kili-kolo daude eta buruhaustetxoren bat izango duzu.



AQUARIUS

Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Oso egoera onean zaude intelektualki. Ardura batzuk sortuko zaizkizu, baina berehala ahaztuko lagunek eskainiko dizuten arretagatik. Kontura zaitez behingoan maiteminduta zaudela.



CANCER

Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra


Finantzak berebiziko garrantzia hartuko dute datozen egunetan. Zeozer kili-kolo dabil zure bizitzan eta oraindik ez daukazu garbi zer den. Har ezazu patxada pixka bat horretan pentsatzeko.



SCORPIO

Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra


Tirabirak suerta litezke baina zeurearekin aterako zara zer lortu nahi duzun garbi daukazulako. Jarrera zeureko samarra hartuko duzu horretarako, baina, "besteok hor konpon" esanda lasaituko.



PISCIS

Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Profesio-mailan gailurra ikusi duzu, baina bizimodu pertsonalean ez duzu gardentasunik ikusten. Emaiozu bigarrenari lehenetsuna bestea ziurtatuta daukazu eta. Norbait zure beharrean



Patterncam

**EREDUAK,
MAKETAK ETA
KONTROL-TRESNERIA
CAD-CAM
BIDEZ**

Musakola auzoa, 26

Kataide Industrialdea, 15. pabilioia. Tfnoa: 77 08 30. Faxa: 77 06 06

ARRASATE



Txatxaran

Osteguna, 21.15

Datorren astetik aurrera, saio berri bat: *Txatxaran*.

Argazkian eskuman dagoen Maider Egüés-ek Arrasateko hainbat gazte ekarriko ditu gure estudioara. Datorren ostegunean, 21.15etan ikusi ahal izango duzuen programa honen lehenengo emanaldian, Olatz Lazkano (ezkerrekoa) elkarrizketatuko du, 14 urte dituen balet-dantzari gaztea.

Etorri zu ere gurekin *Txatxaran* egitera!

Telebegi

Zaping-zale amorratuon denborapasarik gustukoena kate ezberdinetako programazioan murgiltzea izaten da.

Atzo, eta katetik katera saltoka nenbilela programa kuriosoaz ohartu nintzen gurea ez den kate batean.

Lau emakumek, eder eta gorputz erakargarrikoak noski, bularrak eta ipurdia erdi-bistan zituztela, dantza antzeko zerbait egiten zuten aurkezle mozolo baten atzean. Nesken mugimendua —erotikoa erabat hain behartua izan ez balitz— dekoratuaren parte bat besterik ez zen, eta erreklamo ere bai, noski. Mugimenduak gora eta behera bultzatzen zituen guztietan ere bular perfektuak eta nesken aurpegia ikus zitezkeen plano bakarretan; izan ere, planoak gorputza soilik hartzen zuen gehienetan; lotsaz jantzitako irribarre negargarria ikus zitekeen.

Bapatean, feministek, oraindik ere non lan egin badutela pentsatu nuen eta halabeharrez feminista ez garenok ere bai. Nik, nolabait hasteko, telebista itzali nuen; hori bai, egunkarian, hurrengo eguneko teleprogramazioa ongi erreparatu ondoren.

ANDONI URZELAI

Telebelarri

► Herri-prentsaren gorakadan Arrasate Press-ek sekulako garrantzia izan du. Horregatik izango gara lhardu-naldien anfitrioi".

Mikel Irizarrek, *Berriak*-en.

Mondra-Gol

Aste honetan:
Abetxuko-Mondra

Igandean
9.15etan

Programazioa

10

IGANDEA

9.30etan, *Mondragol*. Abetxuko-Mondra partiduaren ordu erdiko laburpena.

12

ASTEARTEA

8, 8.30 eta 9etan, *Berriak*. 9.15. *Erreportaiak*. Ehizari buruzko lan bat eta larunbatetan Monterronen burutzen diren umeentzako bideo emanaldiei buruzko beste bat izango dituzue ikusgai.

14

OSTEGUNA

8, 8.30 eta 9etan, *Berriak*. 9.15. *Txatxaran*. Maider Egüés-ek zuzendutako elkarrizketa-saioa. Aste honetako gonbidatua *Olatz Lazkano* izango dugu, Arrasateko balet-dantzari gaztea.

11

ASTELEHENA

8, 8.30 eta 9etan, *Berriak*. ATBren albiste-emanaldia. 9.15etan, *Mondra Sport*. Arrasateko kirol-mundua-
ren errepara.

13

ASTEAZKENA

8, 8.30 eta 9etan, *Berriak*. ATBren albistegia. 9.15. *Musikala*. Eibarko *Soto* abesbatzak ostiral honetan San Frantzisko elizan burutuko duen emanaldiaren laburpen zabala.

15

OSTIRALA

8, 8.30 eta 9etan, *Berriak*. 9.15. *Erretratoa*. J.R. Elortzak zuzendutako elkarrizketa saioa. Gonbidatua: *Aiña Demetrio Garmendia*, duela 30 urte Arrasatera etorritako frantziskotarra.



HIRI ETA ESTATU BARNEKO ETA NAZIOARTEKO

BIDALKETAK

ALBACETE, Batalla del Salado, 37. T. 967-22 75 53 - **Almansa**, Aniceto Coloma, 40. T. 967-34 58 58 - **ALICANTE**, C/A Fuentes de Alipark, loc. 3. T. 96-510 05 33 - **Alcoy**, Entenza, 46. T. 96-552 55 66 - **Benidorm**, Lepanto, loc. 30. T. 96-586 53 11 - **Elche**, Avd. Libertad, 123. T. 96-544 21 01 - **Elda-Petrel**, José Martínez González, 89. T. 5385 9 98 - **Torreveja**, Avd. Diego Ramírez, 223. Ecucenter, T. 96-571 73 91 - **ALMERIA**, Santa Isabel, 62. T. 951-25 09 88 - **El Ejido**, Alvaro Soto Mayor Gal. Cial, T. 951-48 36 13 - **Huerca Overa**, Crta. Nacional 340, Edif. Davinia, 2. T. 951-47 13 13 - **ANDORRA**, Carlemany, 105. T. 973-8-26300 - **AVILA**, Avd. de la Juventud, 6. T. 918-2112 67 - **BADAJOZ**, Av. Juan Sebastián Elcano, 5 A. T. 924-25 50 51 - **Don Benito**, San Francisco, 30. T. 924-84 33 07 - **Mérida**, José María Pemán, 3. T. 924-31 94 49 - **PALMA DE MALLORCA**, Andrea Doria, 8. T. 971-23 21 41 - **Inca**, Edisson, 1. T. 971-50 37 11 - **Manacor**, Av. Salvador Juan, 86. T. 971-55 57 74 - **Ibiza**, España, 30. T. 971-30 16 00 - **Formentera**, Crta. Pujol, s/n. T. 971-32 24 18 - **Ciudadela**, Camí d'es Degollador, 87. T. 971-38 05 12 - **Mahón**, Av. Anselmo Clavé, 56. T. 971-35 05 12 - **BARCELONA**, Casanova, 79. T. 93-323 32 05 - **Receptorías Urbanas: Feria de Muestras**, Palacio de Congresos - **Boulevard Rosa**, Pº. de Gracia, 55-57 - **Centro "La Caixa"**, Diagonal, 635 - **Cristal**, Gran Vía, 1176 bis - **Jonqueras**, Jonqueras, 2 - **Mercurio**, Vía Augusta, 59 - **Nerviñ**, Vía Layetana, 20 - **Windsor**, Vía Augusta, 2 - **Financia**, Pau Claris, 162-164 - **Pallars**, Pallars, 85-91 - **Colón**, Drassanes, 6-8 - **Mercabarna**, Esc. C Edificio Oficinas - **Hipercor**, Meridiana, 354 - **Padilla**, Padilla, 205 - **Carlos III**, Sabino de Arana, 32 bis. bjos. - **Badalona**, Marqués de Mont Roig, 126. T. 93-388 51 51 - **Barberá**, Pso. Moragas, 256. T. 93-718 36 52 - **Berga**, De la Sardana, 27. T. 93-874 12 98 - **Cornellá**, Crta. Sant Boi, 9. T. 93-377 22 00 - **Granollers**, José Umbert, 58. T. 93-870 06 12 - **Hospitalet**, Plaza Maestro Clavé, 6-8. T. 93-337 01 00 - **Igualada**, San Ferrán, 22. T. 93-804 24 11 - **Manresa**, Crta. Pont Vilomara, 17. T. 93-874 12 12 - **Mataró**, Rda. Antoni Comas, 24. T. 93-798 34 57 - **Mollet**, Cayetana Ventallo, 87. T. 93-570 47 52 - **Pineda**, Santiago Rusiñal, 11. T. 93-762 69 69 - **Polinyá**, Mayor, 5-7. T. 93-726 72 20 - **Premiá**, De la Plaza, 36. T. 93-752 10 55 - **Rubí**, Avd. Catalunya, 4 Edif. Iris. T. 93-697 03 66 - **Sabadell**, Rosales, 18. T. 93-726 43 77 - **S. Andrés B.**, Plaza Iglesia, 1. T. 93-653 24 51 - **Tarasa**, Balmes, 19. T. 93-789 22 22 - **Vic**, Av. Mari Genis Aguilar, 25. T. 93-885 62 50 - **Villafraanca**, Arbós, 14. T. 93-890 35 40 - **Villanueva**, Gornal, 13. T. 93-815 19 60 - **BILBAO**, General Eguía, 7. T. 94-443 76 08 - **Receptorías Urbanas: Feria de Muestras**, Zona Servicios - **Cámara de Comercio**, Alameda Recalde, 50 - **Bermeo**, Reina Zubi, 17. T. 94-688 19 04 - **Durango**, Maspe, 10. T. 94-620 01 62 - **Guernica**, Bº Txaporta, 3. T. 94-685 55 00 - **BURGOS**, Comuneros Castilla, 19. T. 947-23 66 11 - **Miranda**, Reyes Católicos, 14. T. 947-31 06 40 - **CACERES**, Sta. Luisa Marillac, 16. T. 927-21 06 34 - **Plasencia**, Rda. Salvador, 71. T. 927-41 26 09 - **CADIZ**, Guadix, 3. T. 956-25 75 61 - **Algeciras**, Urb. Dña. Casilda, bloq. 10. T. 956-65 35 61 - **Ceuta**, Gral. Aranda, 10. T. 956-52 18 01 - **Jerez F.**, Pso. Delicias, 5. T. 956-34 01 11 - **LAS PALMAS**, San Diego de Alcalá, 12. T. 928-36 55 77 - **Fuerteventura**, Avd. 23 de Mayo, 3. T. 928-85 07 17 - **Lanzarote**, Avd. Mancomunidad, 4. T. 928-81 67 14 - **Playa del Inglés**, Centro Comercial Nilo, loc. 1030 - T. 928-76 66 53 - **TENERIFE**, Ramón y Cajal, 50. T. 922-28 34 54 - **CASTELLON**, Maestro Falla, 7. T. 964-22 87 99 - **Benicarló**, Del Pilar, 10. T. 964-47 47 79 - **Vall de Uxó**, Plaza Villaveja, 6. T. 964-66 71 11 - **CIUDAD REAL**, Parque Residencial Rda., bl. 11. T. 926-25 24 66 - **Puertollano**, Pso. San Gregorio, 1 Bl. B. T. 926-43 00 50 - **Valdepeñas**, Amparo, 18. T. 926-32 17 32 - **CORDOBA**, Avd. Libia, s/n. T. 957-26 86 00 - **Lucena**, Hoya del Molino, 6. T. 957-59 13 71 - **Pozoblanca**, Dr. Antonio Cordero, 8. T. 957-10 26 20 - **CORUNA**, Primo de Rivera, 11. T. 981-24 45 33 - **Ferrol**, Perbes, 16. T. 981-32 02 00 - **Santiago C.**, Pasadizo Brión, 11. T. 981-56 22 55 - **Rivera**, Ramón y Cajal, s/n. T. 981-87 22 12 - **CUENCA**, Colón, 73. T. 966-22 92 21 - **GERONA**, Andrés Tuyet Santamaría, 13. T. 972-21 55 66 - **Figueras**, Verge María, 6. T. 972-50 27 66 - **Junquera**, Crta. Nacional II, Km. 11. T. 972-54 05 05 - **Olot**, Pare Roca, 8. T. 972-26 58 58 - **Palamós**, Iglesia de Sant Joan, 6. Tel 972-31 86 00 - **Puigcerdá**, Pla del Fort, 4. T. 972-88 14 51 - **GRANADA**, Trucha, Edif. Victoria, 3. T. 958-29 34 38 - **GUADALAJARA**, Angel Ma, de Lera, 4. T. 911-21 58 16 - **HUELVA**, Fernando el Católico, 4. T. 955-25 70 12 - **Ayamonte**, Joaquín González Saez, s/n. T. 955-32 19 57 - **HUESCA**, Congilio de Ibon, 14. T. 976-49 96 61 - **JAEN**, Avd. Madrid, 25. T. 953-26 53 04 - **LEON**, Cipriano Huerga, 14. T. 987-21 15 11 - **Ponferrada**, Tras de la Bóveda, 12. T. 987-41 82 51 - **LERIDA**, Avd. de las Garrigas, 13. T. 973-20 57 58 - **Tárraga**, Dr. Riu, 7. T. 973-31 30 68 - **Viella**, Av. Pas d'arro, 5. T. 973-20 57 58 - **LOGROÑO**, Jorge Vigón, 28. T. 941-25 79 66 - **Calahorra**, Bebricio, 41. T. 941-13 30 66 - **LUGO**, Amor Meilán, 14. T. 982-24 13 61 - **Foz**, Méndez Val, 8. T. 982-13 21 02 - **MADRID**, Ros de Olano, 7. T. 91-413 62 14 - **Receptorías Urbanas: Gran Vía**, Gran Vía, 67 - **Indubuilding**, Vía de los Poblados, 9 y 11 - Nº. 3. Sor Angela de la Cruz, 24 - Nº. 4, Cedaceros, 9 - **La Caixa**, Pº. Castellana, 51 - **División Internacional**: Coslada, 15. T. 91-246 26 00 - **Alcobendas**, Pintor Velázquez, 10. T. 91-653 50 66 - **Arganda**, Crta. Valencia, Km. 25.8, Nave 38. T. 91-871 44 91 - **Majadahonda**, F. García Lorca, s/n. Urb. Delta. T. 91-638 78 97 - **Getafe**, Avd. Ciudades, 92. T. 91-681 14 14 - **Móstoles**, Castellón, 15. T. 91-617 64 63 - **San Fernando**, Sierra Albaracín, loc. 33. T. 91-656 21 13 - **MALAGA**, Urb. Santa Cristina, loc. 6. T. 952-34 07 00 - **Fuengirola**, Miguel Unamuno, s/n. L3C. T. 952-46 30 00 - **Marbella**, Terrazas P-3, loc. C. T. 952-82 61 61 - **Melilla**, Carlos de Arellano, 22. T. 952-68 38 47 - **Nerja**, Chaparril, s/n. T. 952-52 14 90 - **Ronda**, Villanueva, 21. T. 952-87 69 49 - **Torredelmar**, Urb. Pueblo Rocio, bloque 1. T. 952-54 05 84 - **MURCIA**, Pza. de las Balsas, 3. T. 968-21 00 31 - **Cartagena**, Licenciado Cascales, 10. T. 968-52 72 88 - **Lorca**, Avd. Juan Carlos I, Edif. Goya, T. 968-46 43 00 - **ORENSE**, Greco, 25. T. 988-24 34 00 - **OVIEDO**, López del Vallado, 7. T. 985-20 11 11 - **Avilés**, Llano Ponte, 56. T. 985-55 10 11 - **Gijón**, Perlera, 9. T. 985-35 11 11 - **PALENCIA**, Los Robles, 24. T. 988-74 79 77 - **PAMPLONA**, Pedro I, 19. T. 948-27 70 11 - **Tudela**, Diaz Bravo, 1. T. 948-82 19 17 - **PONTEVEDRA**, Trav. V. C. Mercadillo, G. Venecia. T. 986-84 43 12 - **Lalín**, Corredoiro, 40. T. 986-78 17 44 - **Vigo**, Couto Piñeiro, 6. T. 986-41 51 00 - **Villagarcía**, San Roque, 15. T. 986-50 43 33 - **SALAMANCA**, Bolívar, 10. T. 923-23 14 62 - **Fuentes Oñoro**, Doctor Fleming, 28 A. T. 923-47 32 82 - **SAN SEBASTIAN**, Pso. Vizcaya, 17. T. 943-46 40 55 - **Azpeitia**, Polig. Ind., 35, Barrio Landeta. T. 943-81 54 08 - **Eibar**, Pso. Urquiza, 24. T. 943-12 09 50 - **Irún**, José Eguino, 14. T. 943-61 25 41 - **Mondragón**, Avd. Vizcaya, 16. T. 943-79 96 97 - **Tolosa**, Av. Alava, s/n. Bl. 2. T. 943-65 41 24 - **SANTANDER**, San Celedonio, 11. T. 942-22 52 72 - **Torrelavega**, José Luis Hidalgo, 5. T. 942-89 74 16 - **SEGOVIA**, Av. Fdez. Ladreda, 28. G.C. Loc. 10. T. 911-44 00 55 - **SEVILLA**, Alejo Fernández, s/n. T. 954-42 05 11 - **Receptorías Urbanas: Sevilla-2**: Francisco Javier, 9 - **Torre de los Remedios**, Rep. Argentina, 24 - **Estepa**, Sevilla, 48. T. 954-42 00 08 - **SORIA**, Postas, 27. T. 975-22 60 96 - **TARRAGONA**, Mar, 19. T. 977-22 25 22 - **Amposta**, Mayor, 28. T. 977-70 52 04 - **Reus**, Roseta de Sales, 40. T. 977-34 54 54 - **Tarazona**, Nova de Vall, 1. T. 977-44 67 13 - **Valls**, Sta. J. Vedruna, 7. T. 977-60 66 11 - **TERUEL**, Urb. La Guía, D.8. T. 974-60 85 18 - **TOLEDO**, Avd. Sta. Bárbara, 10. T. 925-21 44 04 - **Talavera**, Aragón, 6. T. 925-80 02 87 - **VALENCIA**, Dr. Beltrán Bigorra, 7. T. 96-341 44 22 - **Receptorías Urbanas: Feria de Muestras**, Zona de Servicios-Zona Este y Oeste - **Alicia**, Plaza Sagrada Familia, 8. T. 96-241 99 04 - **Gandía**, Mayor, 44. T. 96-287 31 70 - **Játiva**, Escultor Esteve, 5. T. 96-227 23 34 - **Onteniente**, Dos de Mayo, 95. T. 96-238 80 62 - **Requena**, Pza. Janini, s/n. T. 96-230 24 69 - **Sagunto**, Los Huertos, 89. T. 96-266 59 89 - **VALLADOLID**, Málaga, 10. T. 983-39 23 44 - **VITORIA**, La Florida, 58. T. 945-28 57 00 - **Llodio**, Solocelai, s/n. T. 94-672 56 66 - **ZAMORA**, Arapiles, 26. T. 988-52 10 99 - **ZARAGOZA**, Miguel Servet, 128. T. 976-49 95 11.

- HIRI BARNEKO ZERBITZUA
- * Furgoneta zerbitzua (400 Kg.)
- * Furgoneta zerbitzua (1.200 Kg.)
- ESTATU BARNEKO ZERBITZUA
- * Gau eta egun
- NAZIOARTEKO ZERBITZUA
- * Courier zerbitzua
- * Aire-karga zerbitzua
- * Itzulpen zerbitzua

ARRASATE

Bizkaia Hirib. 16, Tfnoa; 79 96 97

EIBAR

Urkizu Pas. 24 B, Tfnoa: 12 09 50

AZPEITIA

Landeta Auz. z/g Tfnoa: 81 54 08

DURANGO

Maspe 10-B, Tfnoa: 94-620 01 62

INFORMAZIOA
900 300 400



-ko kide

-ko kide